

# Pedro Antonio Añibarro Aitaren *Misionari euscalduna* liburuan dantzei buruz dakartzan 66. eta 67 doktrineak bere adibideekin

JOXEMIEL BIDADOR

## 1. BIZITZA

Pedro Antonio Añibarro Ugalde, Bizkaiko Arratiako Billaro herrian sortu zen 1748 urtean. Bilboko San Franziskoren komentuan sartu zen 1764 urtean, nahiz, ikasketak, Arantzazun bukatu zituen. 1772 urtean, apaiztu zen, eta Burgosko Friaseko komentura joan zen zaintzale.

1790 urtean, eta hala eskatu ostean, Zarautzko komentura joan zen. Hor, bere bizitza osoa eman zuen, 1830 urtean hil zen artio. 1794 urtean, Frantzia eta Espaňaren arteko gerran, bertze bi anaiekin atxilotu zuten frantsesek, zenbait hilabetez Baionan atxiloturik zegoelarik. Geroxeago, independentziaren guda ezagutu zuen, eta, bi gatazka hauen artean geratu zen pakealdian, hain zuzen ere, kokatu beharko genituzke izkiriatu zituen lan gehientsuenak.

## 2. LANAK

Bizi zelarik, honako lan hauek argitaratu zitzakion:

- *Cristau Dotriña Nafarroaco Euscaran*, Iruñean argitaratu zen, ospitalaren kontura, eta datarik gabe.
- *Escu Liburua, eta berean eguneango cristiñau cereguiñac*, Tolosa, 1802.
- *Misioco Canta Santuac*, Donostia, 1803.
- *Lora-sorta espirituala, ta proposito santuac vicitza varri bat eguiteco*, Tolosa, 1803; hauxe dugu Palacios aitaren bere bi libururen (*Ramillete espiritual*, Gasteiz, 1765, eta *Propósitos*, Iruñea, 1783) itzulpena.

Hil ostean, beste obra batzuk ere argitaratuak izan dira:

— *Curutze Santearen, Aita Gure ta Ave Marien ganeko eracusaldiac*, Durango, 1879; liburu hau geroxeago aipatuko dut harzara *Misionari Euscaldu-na-ri* buruz aritzerakoan.

— *Gueroco Guero*, RIEV aldizkarian, 42. kapitulurarte argitaratua izan zen soilik.

— *Catálogo de los pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra*, BAP aldizkarian argitaratu zen bere argitaratu gabe dagoen *Libro Becerro o Noticias del Colegio de Zarauz* liburuan agertzen den herri zerrenda hau.

— *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra*, Bilbo 1963, edizio hau Villasante aitari zor diogu.

— *Gramática Bascongada*, ASJU aldizkarian argitaratuta 1969 urtean.

— *Nequea arinduric*, ASJU, 1987 urtean, eta Blanca Urgellen eskutik.

Bere argitaratugabeko lanak ere ugariak dira oraindino, erderaz zein euskaraz. Lehenengo artean, aipatutako *Libro Becerro* edo *Obras Misceláneas* ditugu.

Bigarrenen artean, *Artzai adibideac* edo guri interesatzen zaigun *Misionari euscalduna*. Beraz, ez da makala Añibarro aitak burutu lana.

### 3. MISIONARI EUSCALDUNA

Hona hemen zer dakarkiguten bibliografian aipatzen diren autoreek Añibarroren liburu honetaz: “Arantzazuko aipatzen Prantziskotarren liburutegian, oraindiño argitaratu barik, baña argitaratuteko gertatuta, Añibarro Aitaren MISIONARI EUSCALDUNA deritxon eskuidatzi eder bat arkitzen da.

Bakotxa bost-eun orrialde inguruko liburu bi dira. Bertantxe, kristiñau ikasbidearen lau zatiak, itzaldi antzera, alzalduta dagoz: ganera Andra Mariaganako zaletasunaz itzaldi bi eta aingeruai buruz beste bat. Ona emen liburu bi onek zelakoak direan:

SARRERA: Vici bedi Jesus/Misionari Euskalduna/Cristiñau-Dotrina, ta Sermoiac Bizcai-errie/tan irakasten/Lenengo zatia/A. San Franciscoren Ordeaco Misionisteac atereac/eta predicatuac./Bear dan legez.

Liburu bi, 22 eunki luzera ta 16 zabalera: lenegoan 9 orrialde errromatar zenbakiz zenbatuta. Orrialde onetan ADIBIDEA eta IDOROGARRIA daukaz: gero orrialde batzuk idatzi barik eta 498 idatzita: azkenez egilearen izena ta zirri-marra ta oarpen laburtxo au: *Uurrengoa liburan jarraituko dira ganeko Dotrina, ta Sermoiak*.

Bigarren liburan lenegoan lako idazpuru ta sarrera daukoz. Idorogarriak orrialde bi ta liburuko gaiak 442 beteten dabez.

*Gurutze Santearen/Aita Gure ta ave Marein/ganeko eracusaldiac/* egile berberarenak eta Elosu’tar F. Irarkolan, 1897-ko urtean, Durangon argitaratuak, Añibarro Aitaren eskuidatzi ontatik aterata dagoz. Argitaratutako idazti onek, gauza onetzaz MISIONARI EUSCALDUNAK daukanetik, erdia baño ez dauko. Añibarro Aitak idazti au argitaratuteko euki ebazan zioak ta elburua,

irakurleak jakin dagiazen, oso osorik jarriko dot emen bere ADIBIDEA". Jarraian, Basabe Aitak Añibarroren Adibidea dakar bere artikukuan<sup>1</sup>.

Zenbait urte beranduxeago, Jon Etxaidek, bere *Hamasei seme Euskalerriko* liburuan Villasanteren berriak hartuta zera diosku: "Misionari Euscalduna, Cristiñau Doctrina ta sermoiac Bizcai-errieta irakasten. Bi liburu lodi dira, bat 498 orrialdekoa eta bestea 442-koa. Misio sainduetan eginko sermoiez horituak daude biak, baina beroietatik apurtxo bat bakarrik izan da argitaratu. Arantzazuko fraidetegian datza gorderik... argitaratu zain.

Eta orain jarri gakizkion hitzez-hitz prediku haiei buruz Aita Villasanteri, gatz eta piper ugari baitute bere lerroek. "Darabilzkien gaien artean —dio A. Villasantek— zabalki eta oparotsu, beste gai gutxi bezala, Euskalerriko dantzen arazo txit erabilia. Aita Añibarro zorrotza eta euren etsaia ageri zaigu; baina hitzaurrek jakinarazten du: "Ttun-ttun jotzaileak bakarrik balira dantzen defentzaileak, gauzak ez luke axolarik; badira, ordea, kreditudun pertsonak, defendatzen dituztenak, eta hori da txarra". Ez da sinesgarri hitz hauek esatean, A. Añibarrok Larramendi (jesuita) eduki zezala gogoan, zeren eta honek euskal-dantzak defendatzen dituen obra oso geroraino ez baitzen argitaratu. Bestalde, badaiteke Iztueta edukitzea gogoan". Ni honetan ez nator guztiz bat Villasanterekin, zeren A. Larramendiren *Corografía* argitaratu gabe egonarren, andoindar jesuitaren erizpidea gai honetan oso ezaguna izan bide zen, eta zalantzak ez da, moral gaian bereiziki, Larramendi Iztueta baino kreditu handiagoko zela",<sup>2</sup>. Azken puntu honetaz gerroxageko arituko naiz doctrineak komentatzerakoan.

Villasante aitak, bere lanetan, behin baino gehiagotan gogora ekarri digu Añibarroren aipamena; hona hemen haietako bi, Etxaidek aipatzen zuenaz gainera: "Misionari Euskalduna, kristiñau dotriña ta sermoiak Bizkai-errieta irakasten. A. Fr. Pedro Antonio Añibarro, Zarauzko Kolegio A. San Franziskoren Ordeako Misionisteak atereak eta predikatuak. (Bi liburu haunditan, esku-idatzirik; Arantzazuko artxibuan). —Añibarrok berak Mixioetan predikatzen zituan Dotriña eta Semoiak daude obra onetan, txukun, txit ordenaturik eta orrazturik, moldera emeteko lain. Lenengo tomuak, barne azalaren alderantzian oar au dizu erderaz: "Nota. Cuando se haya de imprimir esta obra, se procurará poner en libro de octavo, y con letra gruesa y crecida, para poder llevar en el bolsillo, leer en iglesias de poca luz, y acomodar a vistas cansadas. Así me lo previenen y encargan los curas párrocos". Ona emen bi liburu oitako gaiak: Ziñatu, Aita Gurea, ta Ave Mariaren gañean dotrinak, Amar mandamentuak, Elexa Ama Santaren Mandamentuak, Zazpi Sakramentuak, Kredoak. Dana luze ta edatsuki azaldua. Idazlan audi onen berri murritza ta beronen «Adibidea» edo berba-aurrekoak, argitaratu zan «Euskara», Euskaltzalindiaren aldizkarian, 1934gn. urtean, 258-261 orrialdetan.

Obra onen aurreko atala Durangon argitaratu zan, 1897 urtean, titulu onezaz: «Kurutze Santearen. Aita Gure ta Ave Marien ganeko erakusal-diak»<sup>3</sup>.

1. BASABETAR KOLDOKIKA, 1934.

2. ETXAIDE ITHARTE, JON, 1958.

3. VILLASANTE, KOLDO, 1956.

“Misionari Euscalduna, Cristiñau dotriña ta sermoiac Bizcai-errietan iracasten constituye dos grandes volúmenes en cuarto de letra diminuta, apretada y clara; el primero alcanza 498 páginas, y el segundo 442. En ambos se contienen los sermones que el P. Añibarro predicaba en las santas misiones, preparados y ultimados para ser publicados. Pero nunca llegó a editarse esta magna obra, que hoy se conserva en Aranzazu. Sólo una mínima parte del primer tomo vio la luz pública en Durango en 1897, con el título de *Curutze Santearen, Aita Gure ta Ave Marien ganeco eracusaldiac*. La parte restante, o sea, la exposición extensa y pormenorizada de los mandamientos, Sacramentos y Credo, no se ha publicado nunca”<sup>4</sup>.

Berriki Xabier Altzibarrek argitaratu zuen bere idazle bizkaitarrei buruzko liburan honako argiak jaso ditzakegu: “Frantsesean, 1808. urte amaieran eta bere hirurogeigarren urtebetetze egunean *Misionari Euscalduna, Christiñau-Dotrina, ta Sermoiac Bizcai-errietan iracasten* bi tomo marduletan zatitua den obra idazten hasi omen zen, ordura arteko Dotrina ta Sermoiak obra honetara aldatzeko eskatuz. Bi liburukiok zirriborro dira, geroago bermoldatu bait zituen: “direnac garbiago ta obeto ifiñi zirean beste libru bitan Misionari euscaldunaren zenaz” diosku (II. zatia, 189 or.).

Grafietan, behintzat, aldaketa azaltzen dira bi idazketen artean. Lehenengoan bertan ere hasierako «v», gidoi, laburdura e. a. laster desagertzen doaz. Bigarrenean, gainera, azentua ugari agertuko da. Dena dela, orraztu eta berridatzi ondoren, bi tomo lehen baino mardulagoak argitaratzeko prest utzi zituen, baina argirik ikusi gabe irauten dute oraino ia osorik.

Sartaurre moduko “Adibidea”-n adierazten digu, batetik, obra argitaratzeko asmoa, ustekabeen apaiz zenbaitek hala eskaturik (“Adibidea”-z gainera beste ohar batetan ere inprimatzerakoan liburu eta letraren tamainuaz ari da). Bestetik, euskara apainduago batetan atera ezina, astirik ezaz, baina jaso samar eta bizkaiera zabal eta ulergarri batean saiatu izana. Baita jarraian semoiak ateratzeko asmoa”,<sup>5</sup>.

#### 4. DANTZA AÑIBARRORENGAN

Añibarroren semoiak egoera konkretu berezi baten barruan kokatu behar ditugu. Ez dira, beraz, nolanahi ere sortu. Aitzitik, aldez aitzinetik bada giro berotsu bat, dantza eztabaidea gaitzat hartzen duen giro berotuegi bat<sup>6</sup>.

Larramendi eta Mendibururen arteko lehia latza dugu XVIII. mendeko lehenbiziko erdialdean. Aski ezaguna da lehengoaren Gipuzkoako *Corografía*, baina betirako galdua bide da bigarrenaren hain ezaguna gertatzen ez den *Catecismo lucea*. Egun, eskuetara ailegatu zaizkigun berri bakarrak Mendibururen liburu misteriotsu honi buruz, Larramendik prestatutako zensura eta kritika horri aitzi zensuratuak ihardetsi guttuna<sup>7</sup>.

Dantzen inguruko eztabaidea gori-gorian zegoen beraz XVIII. mende honetan. Urte batzuk lehenxeago Zarautzko komentua *mixiolari-haztetxe* bi-

4. VILLASANTE, KOLDO, 1963.

5. ALTZIBAR, XABIER, 1992.

6. BIDADOR, JOXEMIEL, *Euskal dantza eta morala*, Iruñako Duguna Dantza Taldeak antolatutako I. Dantza Asteak emandako hitzaldia.

7. LARRAMENDI, *Escritos breves*, Donostia, 1990.

hurtu zuten frantxiskotarrek, eta hor kokatu behar da Añibarroren egoitza eta berak ezagutu zuen giroa. Apur bar haboro jakitearren etxe honetaz, hona hemen zer dioskun Villasante aitak bere artikulu interesgarrian: "Larramendiren denporan Zaoratzko Mixiolariak nabarmentzen ziran, euskera egoki eta tajuzkoan predikatzen zekitelako. (...) Komentu au 1610 gn. urtean sortua degu. Juan de Manzisidor jauna, Zarautzko seme argi, eta Flandes-en erregeren Zadorlari izandakoak sorrarazi zun. Kantauroko frantziskotarrek zeukaten komentuetan beartsuenetakoa izan omen zan beti; (...) Erromako Aita Santu Inozenzio Amaikagarrenak (1676-1689) emandako Bulden indarrez eraiki ziran Spainiko toki askotan Mixiolari-Aztetxeak (Colegios de Misioneros Apostólicos). Etxe auek eskola edo mintegi batzuk bezala ziran, mixiotako praille trebe-aukerakoak azi eta ateratzeko.

1746 gn. urtean Kantauroko Probintziak Zarautzko komentu au izendatu zuen Aita Sanduaren agindu ura betetzeko. Urte onetan, bada, Zarautzko komentua Mixiolari-Aztetxe biurtu zitzagun. Mixiolari-Aztetxe berri onek, bere asieran, Sahagun-go aztetxeko lau mixiolari ospetsu izan zitun, bide erakusle edo maisu bezala onera ekarriak. Ondo laister asi ziran Zarauzko Mixiolariak euskal errietan oso ezagunak eta estimatuak izaten.

Mixiolari-Aztetxeok ba-zituzten beren arau jakiñak edo lege bereziak. Biziera latza zerameten, ixiltasunik audienean, eta beren egikizuna bete alizateko, maiz izaten zituzten elkarrekiko solasaldi eta erakusaldiak Moral eta aszetika gaiezaz. (...)

Gure prailleon mixioak etziran beti ondo artuak izaten. Aita Añibarrok idatzitako kronikan ba-dira ortaz ere xehetasun jakingarriak. Obispo Jaun batzuk etzitusten Mixiolariak maite, Calahorra-ko Fco. Mateo de Aguiriano Obispo Jauna, beiñola etsai izandakoen artean aipatzen du, baiño gero, mixio auen frutuak bere begiz ikusi ondoren, oso aldeko jarri omen zitzaien. Mixio oen kontra jartzen ziran aitzakizko sostor edo korapilloak ere adirazten ditu: pekatuak argiroegi, xehetasun geiegirekin azaltzen eta zeatzen zituztela, eta batez ete Seigarrengoa Mandamentuan bear baiño geiago luzatzen zirala, eta ortik, jakiña, askori begiak zabaldu eta pekatu egiten erakus-teko arrisku zetorkela...

Dantza ta erri-jolasak dirala ta eztirala ere, izan zituzten istilluak gure Mixiolariekin. Batez ere, Valmaseda-ko urian egindako mixio batean. Pekatuko bideak errotikan kentzearren, dantza ta josalak ere eragotzi bear zirala edo esan bide zuten Mixiolari ertsiek, ta erriko agintariekin ori geiegikeria zala-ta, agerkai bat eman zuten moldera, Mixiolarion aurka. Orduan Zarauzkoek Aita Palacios Mixiolariari agindu zioten Valmaseda-koei erantzutea. Palacios-ek erantzun luze-edatu bat egin zuen",<sup>8</sup>.

*Misionari Euskalduna liburuan Añibarrok dakarzkigun dantzaren inguruko hain eztabaidagarriak suerta dakizkiguken dotrinak, bigarren liburukan kausi ditzakegu, 22tik 45ra doazen horrialdetan hain zuzen ere, 66. eta 67. dotrinei dagozkienak zehazki. Seigarren mandamentua hausten duten gaitz guzien iturria dateke dantza Añibarrorentzat, eta halako pekatu arriskutsu batez iharduteko bi dotrina hauek ondu zituen, ondoan ipini zenbait adibide txit bitxiekin batera.*

8. VILLASANTE, KOLDO, 1956.

Halarik ere, dantzaren gaia ez da berria idazle bizkaitarraren idazlanetan; nahiz horren oparotsu ez azaldu, baditu aipamen txipiak bere beste bi liburu etan behinik behin. 1802 urtean Tolosan argitaratzen den bere *Escu liburua* ospetsuan honela mintzo zaigu: “Esamina eguiteco bide erraza, ta laburra (...) irugarren mandamentuan: (...) santutu badozu Jai-eguna; eta berean becaturic eguin dozunez: edo egunic gueiena jocoan, dantzan, ordi-lecuetan emon dozunez...”<sup>9</sup>.

Urte bat beranduxeago, 1803 urtean espreski, eta leku berean, Palacios Aitaren *Ramillete Espiritual* eta *Propósitos liburuen* bere euskal itzulpen-bilduman honelaxe esaten digu aita frantxikotarrak: “Lenengo, al daizuen guztia urrindu bear zara dantzeetatik, komedia zezen erromeria ta bisita kostosuetatik, gizon ta andreen batzarretatik, eztireanean preminazkoak. Bai, zerren ezta erraz iakitea, ze kalte gogorrak dakazen oneek guztiok, ta zeintzuk eureetarik egiten dituen gatx andiagoak gure ariman.

Esango dozue, gauza gatxa ta neke andia dala, dibersino oneek largetea. Bainaznik dinot, eun bider gatxago dala, baneria ta dibersino oneek maite izanik, Iangoikoaren Legez gordeteara. Eta esan četzagoze bearturik Lege Santuan gordetera, eztan ausi baga? Begira bada, egarriak ilik dagoan gaiso bat, errazago egongo danez edan baga, urik eztakusenean, ala bere aurrean ta bere eskuetan basu bete ur garbi otz ifinten deutsenean.

Esan dot, al zaizun guztia urrindu zaitezeela; zerren onetariko gauza batzuk v. g. dantzak, etc., preminazko aldiren baten laketu litekez; baina eun kondizionogaz dantza baino len, dantzan ta dantza-ostean. Irakurri egizue onen ganean San Franzisko Sales bere Sartaurrean”,<sup>10</sup>.

##### 5. “66. DORTINEA”, “67. DORTINEA”, ETA “EGEMPLUAC”

Gehiago luzatu barik, Añibarroren bi doctrina hauek, bere adibideekin, sariatuko naiz apur bat komentatzen.

Hasten da lehengo dotrinaren lehenbiziko puntuaren dantza eragozten duten mixiolari edo apaizen aldeko hitz gogorrek. Lehenxeago *Misionari Euscalduna*-z ikusiriko Etxaideren iruzkian, argi agertzen ziren bera eta Villasanteren eritzia puntu honetaz. Lehenengoak ez du onartzen Villasantek diona, eta dantzak defendatzen dituzten “persona cenzundúnac, letradúnac, adimentu argui zolia dabénac” horien artean ez legoike Iztueta Añibarroren pentsamentuetan, Larramendi bera baizik. Nere ustez, ez bata ez bestea ildo onean daude. Ez ote da errazago pentsatzea Añibarrok gogoan daukana Balmasedako afera dela? Jakina de Añibarro eta Palacios aiteen arteko harremana, bai konfesionarioan, edo bai literatura aldetik —hor ditugu lehen aipatutako *Lora Sorta Espirituala*—, eta ezaguna da halaber Palacios aitaren eritzia dantzari buruz, bere *Respuesta Satisfactoria*-n aditzera eman zuen bezalaxe. Bestalde, ziurra da, ia erabat, Balmasedako kapitulua, komentuko anai guzien gogoetan geratu zela denbora luze batez itsasita, eta dantzen

9. AÑIBARRO, PEDRO ANTONIO, *Vici bedi Jesus. Escu liburua, ta berean eguneango Cristináu-cereguinac*, Tolosa, 1802.

10. AÑIBARRO, PEDRO ANTONIO, *Lora Sorta Espirituala ta Propositu sanduak vicitza barri bat eguiteco*, aita Palacios misionariac misiño ondoan emoten cituanac Fr. Pedro Antonio Añibarroc eusqueran ifinita, Tolosa, 1803.

arriskuak erakusteko diren bi dotrinetan, zaila samar litzateke Zarautzko komentuko prade batek aipamenik ez egitea, izkutuan izanda ere.

Bigarren puntuan, erreferenzia berri bat egiten bide dio aipatutako arazoari, eta mixiolararen lana defendatzen du “munduco esamesai beguiratu baga; fama onaz nai charraz igaroten gareala”. Hau errez ulertzen da misiolari etxeetan zegoen bizitza gogorra kontutan hartzen badugu.

Segidan, oso zabalduta zegoen salaketa baten defentsa egiten du. Añibarro ez dago dantzaren kontra orokorrean, ez ditu “era guztico danzac pecatutzat emoten”. Hau ez da ideia berri bat, eta jada Larramendi eta Mendibururen arteko lehian arrazoi garrantzitsu bat bazen. Larramendik Mendiburu dantza guzien aurka egoteaz salatzen zueno, Mendiburuk defendatzen zuen bere burua esanez Nafarroako eta Gipuzkoako dantza berezi batzuk zirela desagertu behar zirenak. Esaterako, *Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* elkartean, oso beharrezkotzat jotzen zen dantzaren irakaskuntza, baina Juan Ignacio de Altuna edo Francisco Xabier de Munibe, elkartearren sortzaileak, Mendiburekin zeuden bere dantzeen aurkako borrokan.

Jarraian, Añibarrok dantzaren sailkapen xume bat egiten du: alde batetik onak daude: “onetaricoac dira, danzalari Balencianoac, Bizcaico ezpatadan-zariac,...”, eta beste aldetik txarrak: “jazoten dan leguez Bizcai-danza lucean”. Argi da zein den Bizkai-dantza hau, hain zuzen ere Mendiburuk aipatzen zituen Nafarroako dantza nahastu lizun horiek: ingurutxoak, ttuntunak, larrain dantzak, dantza-luzeak, ...Euskal Herri osoan barna egun ailegatu zizkigun dantza nahastu gehientsuenak, fandango, orripeko, jota, porrusalda, ariñ-ariñ, polkak, mazurkak, eta abar kenduta noski.

Bizkai-dantza erasotzeko, “elexaco dotore, ta Aita Santuak” esandako guztiak sartzen ditu bere doctrinean. Jakintsu guzti hauen artean San Francisco de Sales aipatzen du, Mendiburuk egin zuen antzera, eta testu osoan, aurrerago irakurtzen den ahala, ugari gertatuko den bezalaxe.

Hizlari on bat bezala, Añibarrok badaki nola eta noiz bereganatu entzulearen harreta, eta hortarako baditu bi dotrinetan zehar sakabanaturik zenbait ideia nagusiak, errepikatzen direnak, esaldi magistraletan emanda. Haue-tako bat bostgarren puntu bukatzeko erabiltzen duena litzateke: “quendu eguiyu lujuria, ta quendu dira danzac: non danza dan, lujuria an dan”.

Bizkai-dantzan partehartzen duten pertsonen deskribapena egiten du Añibarrok, “errico generic gaistoena, gazte zoroac, chori-buruac, oñiac leguez buru arinac, cenzun bagueac”, geroxeago bere deskribapenarekin jarraikitze-ko. Bizkai-dantza bukatu eta gero, “fandangoa, llamada, giga, edo contradanza” hasten dira, “ain desonestuac, ece, zazpi urteco ume batec ezagutu lei, diriala lujuriazco adirantzac”. Berri honek, izugarrizko garrantzia dauka bi datu oinarrizkoak ematen baitizkigu: alde batetik, badakigu urte hauetan egun mantentzen den eskemari jarraitzen ziotela dantzariek, hau da, lehen-bizi erregelak edo soka-dantza, eta hau bukatu ostean, dantza berriak, orri-peko eta porrusalda alegia. Eta noski, plazatik ateratzeko, karrika-dantza egin behar da, edo Añibarrok dioen bezalaxe “contradanza edo arin arinca nastua”, gaur egun egiten den legez.

“Bizcay-danzac” deskribatu ezkero, iruzkin morala hasten da egiten; azal-tzen ditu bere arrazoi guztiak, aita on bat izanen bailitz: “Danzaria, soñulariai, ta euren defenguilleai itanduten badeustségu, ea cer dan dancea? Eran-zungo deuscue, dala dibersiño inocente bat. Eta esan eidazue: era guztico

danzac nos nai, ta nola nai dozuez inocentetzat, garbitzat, ontzat?”. Bere azalpena bukatzeko, Konfesorearen jakinduriaz aritzen da. Hau da hain zuzen behin eta berriro errepikatuko den uste bat. Kontutan hartu behar da Añibarro Palacios aitaren konfesoreoa zela, eta hau ere, konfesionarioan ematen zituen oren galduak. Misioak egin ostean konfesionarioa pil-pilean zegoen baserritar beldurtiez beterik, eta hor posiblea zen edozein gauza aditzea. Hortik datorria agian Añibarrori konfesorearen autoridate moralaren siniste hau.

Hemeretzigarren puntu oso eztabaidea zaharra dugu. Betidanik eliza edo ermitan edo egiten ziren dantzen aurkako aginduak jazo dira, eta Añibarrok ere, bere dotrinenetan halako mezua eman edo errepikatu nahi dio herriari.

Leku sakratuak ez dira dantzatzeko erabiltzen diren eskenatoki bakarrak. Frai Bartolomék bere liburu famatuaren laugarren kapituluan gogorki salatu zituen bigira eta sarauen berberen aitzinean geundeke, nahiz eta Añibarrok ez erabili izen hauek, hurrengo puntuau.

66. dotrina hau bukatzeko, musikalarien aurkako eleak dakarzkigu Añibarrok: “Danzalarien pecatuetan dauqué parte dambolinteruac, alboqueruac, pandaristac, soñulariac, ta cantalariac”. Halaber, agintarien jarrera zein izan behar du azaltzen du argiro: “orduan Agintariac beguiratu ta oartu bear dau, ea cer igaroten dan danzan; ta atera danzatic campora, edo castigatu peccatum ibillerac, edo aciño desonestuac eguiten dabilten gaisto escandaloso lotsabagueac”.

“Confesionarioan sarri jarten eztanac, eztitu ezagutuco, ez sinistuco Bizcaico Danza lucea nastuac dacardezan pecatuac”. Honela hasten du 67. doctrinea Añibarro aitak. Konfesioaren garrantzia nabarmenzen du harzara. Puntu honetan ere, japoniar itxurako *haiku* delako egi borobil bat botatzen du gure idazleak, lehen deitu dudan esaldi magistral hoietakoa batetan: “non dancea dan, an dagozala bicio guziac”. Añibarrentzat, danza pekatu guzien iturria dateke: “errietaco erriertac, aserrec, bicioac, embidiac, icusiecine-coac, ta gaistaqueriac”.

Aurrerago joanez, harrigarri xamar hagituko zaigun ideia bat edirenengi: “Danzara apainduric ta ederric doazan emacumeac dira, deabruac dituan armari sendoenac”. Larramendik honetaz ere zertxobait izkiriati zuen bere *Coreografía*, baina ez emakumea erasotzea, baizik guztiz kontrako: “Que las mozas salgan al baile, más bien vestidas que nunca, ¿por qué lado será parovocativo? Así van a las bodas, así van a los toros y otras fiestas; y ¿quién ha dicho que sin más ni más el ir así vestidas es malo y provocativo? Es que van a ser vistas y que los hombres, viéndolas, se agradan de ellas. Claro está que van a ser vistas, porque no van ni irán a danzar con topos ciegos, y saliendo a la plaza pública no quieren que las tengan por sucias, arlotas, andrajosas, y es cosa exótica pretender que no salgan entre hombres las mujeres sino con la intención de desagradarles. ¿Y qué? ¿No puede una moza ser del agrado de un mozo sin pecado? ”.

Bigarren puntu beste esaldi panpox batekin hasten da: “era guzico pecatuac eguiten dira dancetan”. Lehenago aipatutako ideia errepikatzen da, dantza pekatu guzien iturriarena alegia. Hasiko da autorea datozen puntuau mandamentu bakoitza dantzak zertan eta nolatan hausten duen azaltzen.

Erlazio hau beste ideia kategoriko edo esaldi magistrala horietako batekin hasten da: “Mandamentu gutxi dago, danzan austen eztanic”. Hirugarren mandamentuaren aipamena dator hasteko, bere *Escu liburuan* jadanik ager-

tzen zen ideia bat gogoratz: "Celan gorde ta santificatu lei jaieguna, ce debociño meza ta bezperetan, gox guztia burua apainduten, ta arrastegua danzan emoten dabenac?". Laugarren mandamentua nola hausten duen dantzak azaldu ostean, eta gehiagorik luzatu gabe, seigarren mandamentuarekin hasten da. Agindu honen inguran sor daitezkeen pekatuen artean ezarri du danzarena 66. eta 67. dotrina hauen bitartez, nahiz orain esaten duen legez, dantza mota guzietako pekatuen iturria izan. Beraz ez da harritzeko garantzirik handiena mandamentu honetan ezartzea: "Seigarren mandamentuaren contra eguiten direan pecatuac, eztira esaquizunac". Jadanik Larramendik onartzen zuen zapien erabilera: "La cuarta condición con que apruebo las danzas es que se舞ancen con pañuelos y que no se den las manos hombres y mujeres. Esta condición, aunque no necesaria, conviene para la mayor decencia y recato y para quitar aprensiones y escrúpulos a cualquier imperitante", eta Añibarrok salatzen zaigu ohitura honen erlaxazioa: "Guizon eta emacumeac escu utsac alcarri oraturic". Baina zazpigarren mandamentuaz aritzean, lehenago esandakoa harzara agertzen zaigu, hau da, neskeen harrokeria. Hau exagerazio bat da, eta Larramendirekin bat iñolaz ere ez letorkeena, gorago ekarritako eritzaren arabera. Zortzigarren mandamentuaz bere azalpena ematen bukatzen du hamar aginduen ibilaldia.

Berriro ere, konfesorearen lana defenditzen du jendearen ez-jakintasunaren aitzinaren zortzigarren puntuari: "zuc ala arec dauque arrazoia? Zuc ceure concienciaren berria baño eztaquizu, aec ascorena".

Aurreko doctrinean egin bezalaxe, Aita Santu eta elizako dotoreen eritzia gogoratzen digu. Oraingo honetan, Santo Tomas-en eritzia azaltzen zaigu bederatzigarren puntu honetan; eta Bizkai-dantzaren aurka elekatzea da, ez besterik: "Baleucus Bizcai-danza nastu loi desonestuac". Hau une oro errepikatzen duen ideia daukagu: danza berez ez da txarra, baina Bizkaidantza pekatu guzien iturritzat jotzen du soilik: "guk bere ori berori euren ez beguiraturic dongueac eztirala, baña bai gaurco egunean eguin oy direan leguez, nastuac, ta escandalaoaz".

Bizkai-dantzaren aurkako hitzak ditu berriro, baina orain dantza ikusi behar duen santua hain eralbigarria gertatzen zaison San Francisco de Sales izanen da: "Gozoa, biguna, eztia bera zan, baña baletor cerutic, baleucus Bizcaiko danza nastu escandaloso desonestua, ta balenzu icentatu ta ifinten ebela danza onen fabore ta defensoretzat, uste dot, aserre bician su ta gar eguinic eracusico litequela, alan diñoenen contra".

Aurreko doctrinean hitz gogorrak baldin bazituen etxe pribatuetan egiten diren dantzeetako, orain berriz, zentzu praktiko batez ongi horniturik, nahia go ditu hauek plazan egiten direnak baino, eta onartzera prest ia agertzen zaigu *como un mal menor* erderaz esaten den monduan: "gach guchiago da, ezcutuan, oqueluan, lecu issilean banaca batzuc pecatuan jaustea, asco ta gueienac danza aguirian baño".

Eta, aurreko doctrinean egiten duen antzera, bukatzen ditu 67. dotrina hau agintariantzako ele batzuekin: "O errico Buruac, al dozuen guztia egizue eragozteco guizonea eta andreen danza nastuac".

Beraz, esan daiteke hiru direla Añibarro aitak bere bi doctrina hauetan zehar behin eta berriz errepikatzen dituen ideia nagusienak: Bizkai-dantzeen ondorio txarrak; konfesore eta misiolarien beharra beren lana eta jakindurian oinarriturik; eta azkenik entzule guziak inplikatzen saiatzen da, bai dantzariak, haien gurasoak edo agintariak.

Bi doctrina hauen ostean zazpi adibide erakusten dizkigu idazle arratiarrak. Lehenengo lauak kastidadeari dagozkie, eta azkeneko hiruek dantzari erreferentzia egiten diote. Dantzari buruzko lehenengo adibidean, Ama Birgiña aipatuz saiatzen da entzuleak hunkitzen. Seigarren adibidea hirutako bitxie-na da, herrikoiena izateaz gain. Hiperbole galanta dotrinari aplikatua.

Besterik gabe, hona hemen testuak.

## 66. DORTRINEA

### *Danza nastu loien ganean*

#### 1.

1.—Jaqina da, arerio ta contracor asco irabacico dituala, danzalarien contra prediquetan dabená. Danzaren bicioac sustrai andiac ezarri ditu; erro luceac bota ditu; defensore asco, ta jarraitzalle asco bere aldera ditu. Defenguille oneec balira bacarric dambolinteruac, soñulariac, gente gazte zoro mundutasúnez betéac, igaro liteque: baña erruquigarria da, icustea euren fabore persona cenzundúnac, letradúnac, adimentu argui zolia dabénac. Onegaiti dánzac artu dabé ain indar ta lecu andia: eta ascoren ustez igaroten dira gauza ontzac era guztico danza nastu guziac; euquiten dira dibersiño ta solasa inocentetzat; joaten da euretarara bildur baga ta sarri; concienciaco quezcaric escrupuluric artuten ezta; confesaquizuntzat bere emoten eztira. Eta ori, arrastegui guztian ibilli ezquiero nesca mutillac batera, alcarren escu utsac oraturic; berba loiac esaten; albocadac emoten; milla desonesqueria eguiten. Emen da aguiri, ce ilundiric, ta itsuturic guelditu zan gure adimentua pecatu jatorrizcoaz.

2.—Jangoicoaren ministroai dagocuna, da, eguiac prediquetea; deabruaren asmu ta sareac aguertutea; galbide, arriscu, ta ondagariac eracustea; arima engañatuac, contuan ifini, ta Ceruco bidean sartutea; mundocon esame-sai beguiratu baga; fama onaz nai charraz igaroten gareala. Bestala, Jesus maitearen serbitzariac izango ezguintezquez, diño San Pablo: eta esan bear-co guenduque Ysaias Profeta santuaz: *ay ce damu dodan, bear nebanean ez berba equinaz*. Ezta lenengoa, testimonio guzurrezcóac eregui deuscuezala Predicodoreai, era guztico danzac pecatutzat emoten doguzala. Guzur au jasoco eleuke, ondo adituco balituez Predicarien berba guziac. Bada beti daracusé banaca ta bacocha berez, ce danzac direan pecatutsuac, ta ceintzuc ez, nic orain eguiten dodaan leguez. Diñot bada, iru eratara artu litequela dancea. *Lenengoa* da, eguiten dabéna gizónac euren artean emacume baga; edo andracumeac guizasemeac baga, intenciño onaz, gogo garbiaz, ibillera edo postura desonestu bague. Danza modu au eguiñ ciñeie oñetacoac eten, alcondara ta soñeco guztia izerdiz busti artean: bada orrelaco danzea berez ezta pecatu; eta da beste solasa, dibersiño, edo joco onaren antzecoa. Onerataricoac dira, danzalari Balencianoac, Bizcaiko ezpata danzariac, edo beste edocein eguiten dituenean, guizonac bacarric, edo emacumeac bacarric, baña garbitasunaz, gauza charric nastu bague. Aror non emoten eztoguzan pecatutzat danza guziac. Alan danzatu eban, ta ondo gogoz David santuac Erregue zala Testamentuko Ucha santaren aurrean: bai ta Maria Moysesen

arrebeac, icusiric Jangoicoac egun eban mirari arrigarria, bere erritárrac libratu, ta Faraon ta bere soldadu perseguilleac uretan ondatu cituanean.

3.—*Bigarren* danza modua da, eguiten dana gogo desonestuaz, guiñada loiacaz, berba ta escua loiacaz, bultzada, oracada, postura, ta muguida lujuriazcoacaz. Danza au beti da berez pecatutsua, charra, ta eragotzia; ez bacarric guizon ta embracume nastuen artean eguiten danean; bai ta guizonec bacarric, edo andrac bacarric alcarregaz eguiten dabenean. Eta onetan eztago dudaric; bada desonezqueriaz beteric dagoz onelaco ibillera gaistóac. Onen ganean ez dogu cer galdu demporaric. Eta alan goazan aurrera icustera *irugarren* danza modua, guizon ta emacumeac nasturic eguiten dituecenera, jazoten dan leguez *Bizcai-danza* lucean. Eta onen ganean izango da nic orain eta guero esango dodan guztia. Eracusico deutsuet pecatutsuac direala onetarico danza nastuac; beti ta guztiacaz ezzpadira bere, baña bai gueinetan. Eta ez orrembeste, guizon ta andrac nasturic dabiltselaco, ezzpada batezbere *Bizcai-dancetan* esan ta egun oy direan gaistaqueriac gaiti, celan direan escua loiac, tiracadac, albocada maliciadunac, oracada desonestuac, ibillera lujuriazcoac. Ez dot nic esan bearric, pecatu mortalac direala onela eguiten direan danza nastu loi lujuriazcóac: bada ceuroc ezagutuko dozue, alan direala, ondo enzuten badeustazue, cristiñau doctrina badaquizue, castidade edo garbitasunaren usain pisca bat badozue, lujuriac itsusturic ezzpazagoze, mundutasunez beteric ezzpadozue biotza, Jangoicoari arguia escatuten badeutsazue. Baña orrez guztiaz, eztot esangura, beti beti direala pecatu mortalac: norbait edo banaquetan eztira orrembestera elduco. Bada danza guztiac eztira bardin caltetsuac: ez eta danzalariac bere temple batecoac: batzuc dira desonesqueriara emonagoac, tentatuagoac, tentatzalle andiagoac. Eta bera-gaiti guztiaz cargu egun bear gara, neur tuteco danzaren malicia. Goazan bada orain icustera, cer dar, ta cer eguiten dan *Bizcai-dancetan*.

4.—Guztiac daquizue, ta dacusue, eta erri ascotan jai guztietan, cer egun, ta cer igaroten dan *Bizcai-danza* nastu luceetan; eta ceimbat desonesqueriaz janciric doazan. Onerarico danzac pecatu anditzat emoten dituz Escritura santeá, dacuscun leguez Job santu, ta Ysaias Profetaren libruetan: an aguertzen dira emacume danzarien lotsa-bagueta suna, arrotasuna, maliicia, ta desonesqueria. Danza loioc eragozten dituez Elexako Dotore, ta Aita Santuac, batezbere San Agustinec, San Ambrosioc, San Juan Crisostomoc, San Efren, San Antonio Florenciaco Obispoac; eta ondo beguiraturic beste Dotore guztiac. Eragotzi, z ta donguetzat emoten ditue Erromaco Batzar edo Concilioac, Laodicea, Africa, Cartago, Toledoacoac, ta beste ascoc. Eta Trullangoco Batzarrac eragotzi eban, ez bacarric guizon ta emacumeac nasturic danzan ibiltea, bai ta emacumeac eurac bacarric aguirian danzatzea. Pecatutzat emoten dituez danza modu nastuoc Teologuac, Moralistac, Misionista jaquitun famadunac, San Carlos Borromeo, eta Aita Santu Erromaco Benedicto Amalaugarrenac; ceiñec diño, injuria andia eguiten deutséla San Francisco Salesi, dacardénac danza nastuen fabore, guero eracusico dodan leguez; eta bidez Santo Tomasec onen gañean diñoana. Eta uste dot, edocein cristiñau argui garbico emongo dituela deunguetzat oraingo danza nastu garbitasun bagueac.

5.—Aitetu dodanza Dotore, ta Aita Santuac eragotzi, ta pecatutzat emoten bactitezan euren demporaco dánzac, cer esango leuque balecusé oraingo Bizcaico dancean mutil ta nescachac escuac oraturic, ta beste era guztico danza char guztien gaitzaqueriac an sarturic? Ceuc euquico dozuz pecatut-

zat, cargu eguiten bazara, cer dan, celan eguiten dan, ta gaistaqueriz nasturic doian Bizcai-danza lucea. Au asten dabe, edo guizónac bacarric, edo emacumeac bacarric. Asiera onetan eztago gauza charric, bestela nastu ta eransiten ezpadira esate, ta eguite gaistoac. Eta uxala alan baliraue danza guztian guizon, ta andrac bacarric: baña ez dagoque orrela ondo: eztabe idoroten gusturic, gatzic, zalegarriric, nastuten ezpadira nesca-mutilac. Eta celo santo-co Alcate batec nastua eragozten deutsenean, berez largatzen dira danzac. Señale adigarria, lujuria dala danzaren guidaria, soñularia, deia, gatza, ta gustu-emollea. Ce ederto esan eban Jaquitun batec: *quendu egizu lujuria, ta quendu dira danzac: non danza dan, lujuria da an:* lujuriac daroa aur-escua.

6.—Bizcai-danzaren charqueria asten da erdian; ceinetan guizon baco-chac ateraten dau bere escura, berac gura daben nescacha edo andrea: eta ez ezainena; ezpada ederrena, maiteena; ta bearbada ceinegaz lenago pecatu eguin daben; ceinegaz amorentasunean bici dan; edo ceini ezcontza-berbea emonic deutsan. Eta menturaz ezpaliz dancea gaiti, eraric izango ez eban, beragaz berba eguiteco, edo issil-mandatuac eguiteco. Onelacoac ce gauza on eguin leie danzan? Danzara doazanac, izan oy dira errico genteric gais-toena, gazte zoroac, chori-buruac, oñac leguez buru arinac, cenzun bagueac: oñac ain arin dituanac, ez dau astun burua. Gazte zoróac ez ece, joan oy dira ezcondúac bere, alargúnac, eta zárrac bere: eta deungago dana, bai ta sein-dun edo sabel-catigu dagozan andra eróac. Eta ez guichitan galdu dabé saboleco seiña; edo jaio da demporea baño len, danzaco saltu, brinco, arinca, bulzaca, ta guizato torpeen colpe goporracaz. Eta nergagarriena da, icustea, orren ardura baga galdu ta ilten dala bateo santua baga, Jesus maiteari aimbeste costa jacon arimea. Peligru onegaiti eguiten dabe beste pecatu barri bat, sabel-catigu, edo dudan egonic, danzara doazan andrecuméac: eta eztabilz urrin descomuniñotic.

7.—Onela bildu batutен dira Bizcai-danzan oguei, oguetaamar, edo berroguei persona, neurri bardinean guizon ta emacuméac. Bacochác berea bere escuan artutean, eguiten dira milla eraqueria, eracusten da cariñu mai-tea, esaten dira berba ez garbiac, ta eguiten dira amorezco palagúac. Catea baten eleztunac leguez esturic ta estuturic dabilz guizon ta emacumeac escu utsac alcarri emonic ta oraturic: andra bat guizon bien erdian. Escu utsac alcar emotea, onelan dempora lucean ibiltea, eta beste eguiten direan orac-adac, cirriac, bulzadac, baldin eguingo balira danzatic campora, edoceinec euquico leuquez pecatutzat. Bada danzan bertan cegaiti ez? Licencia al dago danzan, nai dana eguiteco? Dispensaturic al dagoz danzalariac seigarren mandamentuan? Alcate batzuc gach ezagun au eragozteco, aguindu daroe, eztitecela ibilli guizon ta emacumea escu utsac emonic, ezpada pañuelu bat escu bien bitartean ifiniric. Baña ezta au asco: cerren batetic, mutil gaistoac libertade gueiago artzen dabe, nai daben lecura escua eroateco, ta eguiteco, escutic oraturic balegoz, eguingo ez leuquézan joteac, albocadac, ta acciño loi ciquiñac. Bestetic barriz, probidencia uts onegaz bidea emoten jaqué ostuteco pañueluac erosteco. Asco al da len ostua, danzara apainduric joate-co. Ez eta pañueluaz garbituten eztira orain esango dodazan gaistaqueriac, ta loquieriac.

8.—Guizon ta emacumeac alcarren escu utsac loturic, darraioe danceari neste-borraste andiaz, saltuca, brincoca. Emoten dira, ceinec gueiago albocadac, butzadac, escutic tiracadac, ta ascotan bai ta laztanac. Tiracada, gira-bira, inguru, ta bultzaca oneecaz jausten dira ez guichitan emacumeac lurrean;

edo mutillac euren ganean: aguertuten dira batzuetan barruko soñecoac, edo araguiac. Yndecencia lotsa-bague au igaroten da barregarritzat, ecerezqueriatzat, quezca ta escruplulu bague. Mutil-tzarrac esan oy dituez berba zantarrac; jaso osticoaz nescachen magálac; bai ta eguin ibillera, ta postura desonesquerriaren adigarriac. Alan dabilz ordu lauren baten leguez guizon ta andrac, gorputzaz gorputza joten; escandaloa emoten; guiñada, guiñu, ta muguida gaistoac eguiten; bai ta ez guichic pecaturaco issil-mandatua eguiten. Jaquina da eztoazala danzara, erosario errezzatera, Jangoicoari ta Ama Virgiñari gomendatutera, ezpada euren gogoac poztutera; gríña gaistoai olgura emotera; euren maiteai atseguiña emotera; euren galaiac icustera; euren buru ondo apainduac eracustera. Onelaco prestaera dongueaz danzaturic, celan urten leie danzatic arima ta garbitasunaren calte baga, edo pensamentuz, edo berbaz, edo ibilte gaistoacaz; edo dacusenai gach-bidea emon bague? Eta ce andia emoten eztabé, baldin danza nastu aguirian badabilz, debotatzat, virtuosotzat dagozanac; edo ezconduac, alargunac, zarrac ta estadu goratu beneragarrico personac? Cer icasico dabe gaztéac oneetaric? Alan dago mundua galduric.

9.—Aimbeste gauza, ezain lotsagarri eguin ezquero danza luzean, asten da fandangoa, llamada, giga, edo contradanza: ceinetan escuac ascaturic danza eguiten dau guizon bacochac aparte bere escuan lucero erabilli dabent andreaz: eta euretaric ascoc eguiten dituez postura, siñu, ta gorputz-muguida ain desonestuac, ece, zazpi urteco ume batec ezagutu lei, diriala lujuriaza coadirantzac. Esan da guztia aztu eraguiten dau, azquenean eguiten dan contradanza edo *arin arinca* nastuac, barriro escuac oraturic, arinca ibilliric, bata besteaz nasturic, batzuetan alcarren ganean jausiric, araguiac ta barruko jaztecoac aguertuten direala, carraca ta prisaca ibilliric, ta len baño desorden na zantarragoac eguiten direala.

10.—Onexec dira *Bizcai-danzac* derichenac: eta onelan gichi gora bera eguin oy dira, beti ezpada, bai gueienetan, batezbere danzalariac badira desonestuac, ta andre-zaleac, eta emacumeac mari-mutillac. Uste dot, guichtan egingo direala onetarico danza nastuac, pecatu mortalen bat jazo baga; dala batera, dala bestera. Eta uste onetan uts eguiten badot, eztaquit, ce danzac direan Aita Santúac pecatu mortaltzat emoten dituezanac: bada Bizcaiko danzan eguin, sartu, ta barrututen dira beste danza guztien bilcune, nastuera, ta gaistaqueriac. Eztot esan gura, beti eta guztientzat direala peccatu mortalac. Bada onetaraco begiratu bear da, ce gogoaz doazan danzara, eta cer eguiten dan an. Danza nastu bat iruditen jat, ichasoan ondatutzen dan ontzi bat: gueienac itoten dira: guichi batzuc libretan dira: baña guztia icusten dira peligru arriscatuan. Danceenasmaguillea ez zan Jesu Cristo, ezpada deabrua. Bizcai-danza au jatorcu, emen bici izan cirian gentiletaric, Santiago Apostoluac fede santaren barri onac ecarri artean. Yñoc esango ezteust, Jangoicoaren gustucoac direala guizon ta emacumeen arteco danza nastuoc: eta bai, direala peligrosoac, arriscatuac, lujuriaza bidea emoten dabeenac, gazteac gaistotu, ta calte andiac arimai dacarcoezanac. Au obeto ezautu daizuen, len esan dodazan errazoien ganera, enzun eidazuez orain beste batzuc.

## 2.

11.—Danzariai, soñulariai, ta euren defenguillearitanduten badeutségu, ea cer dan dancea? Eranzungo deuscue, dala dbersiño inocente bat. Eta

esan eidazue: era guztico danzac nos nai, ta nola nai dozuez inocentetzat, garbitzat, ontzat? Ez ori. Beraz, badira pecatutsuac, charrac, ta eragotziac direanac bere? Bai duda baga. Ceintzuc dira bada orreec, baldin ezpadira Bizcaian egún oy direanac, guizon ta andrac alcar escu utsac batac besteari lucero emonic; bultzada albocada, berba loi, beguirada, ta modu charrean ta desonestuan erabilliric; lotsatasun guztia galduoric; ta gueienac lujuriaz erreten direala? Onelaco danza nastúac onac eta garbiac badira, ce danza dira pecatutzat emoten dituezanac Escritura santa, Aita Santu, Concilio, Dotore, ta Teologu jaquintsuac? Cegaiti orren biciro dedar eguiten dabe danceen contra? Cegaiti diño San Agustinec: obe litequela achurraz lurra landutea, josten, edo goruetan jaiegun guztian egotea, danzan ibiltea baño? Achurquinta, ta escu lan bearrac premia eguiazcoa baga, ta ordú bian eguitea, pecatu mortala da: orrez guztiaz Dotore Santu onec, euroc baño charragotzat ditu danza nastuoc.

12.—¿Cegaiti diño San Geronimoc, sinistuco ezteutsala dirautsanari, danza nastuan ibilli ezquiero, conciencia garbiaz urten dabela danzatic? Cegaiti diño San Efrenec, onetarico danza nastuac direala deabruaren escola ta egercitúac: Lucifer dabillala danzarien capitai, guidari, maissu, ta euscu-aurrecotzat: danzan daucala bere feria ta mercatu: an arima asco irabazten dituila: an emacumeac galduen direala: gaztetasuna biciatu: lujuriaraco beguiac zabaldu: an Angueruac tristetu, ta deabruac poztutene direala? Cegaiti diño San Basilio andiac, onelaco danza gaistoetan emacume guztiac ezaindu ta galduen dabela gorputzeco, edo arimaco castidade edo garbitasuna? Cegaiti orrembeste aserre, erretasun ta gorroto daracusé Aita Santuac, eta Dotoreac onelaco danza nastu arriscatuen contra? Ceuroc euquico dozuez pecatutzat, beti ta guztientzat ezpadira, baña bai gueienetan, baldin gogoratuten badozue, nortzuc doazan danzara; cetara, ta ce gogo edo intencíñoaz doazan ara; ta cer eguiten dan an.

13.—Danzara doazzanac izan oy dira, len esan dodan leguez, buru ta oñarinac, cenzun ta debociño guichicoac, gazte zoroac, ardura ta lotsa bagueac, lujuriaz erreac. Danzara doaz nai dabenean, ta gura daben guztiac: onac ta gaistoac artzen dira: errian bada guizon, edo emacume desonestu, fama ta usain charreco bat, eztau an uts eguingo. Eta celan ibillico dira, onelacoen escuetan dabilzénac? Santa Teresa, ta Santa Clara bat balitz bere, eztaquit, cellan igaroco leuquean aen escuetan ibilliric, aen berba loiak enzunic, aen oracada, llaneza, ta bultzadacaz. Doaz danzara aficiño andiaz, gogo ez garbiaz. Doaz gustu ermotera euren griña ta deseoa charrai, eta euren adisquide ta galai maiteai; zaldi ta cecen berotuen antzera. Eracusten dabe arrotasuna, andiustea, goitura, garboa, ondo-erechitasuna, lotsa-baguetasuna, azartasuna. Danzara iñor eztoa santuen papera eguitera; moduzcotasuna, garbitasuna, debociñoa, ta cristautasuna eracustera.

14.—Danzan eztago conturic arimeaz, conciencias: eztago beguiramenturic ez arduraric beguiacaz, miñaz, escuacaz, esate ta eguiteacaz. Beguiac libre dabilz: amorezco berbac enzuten dira; baña ez on bat: griña charrac eci baga: gorputza ondo janciric: mutil edo nescacha aurrean: tentagarria alboan: escuac alcar oraturic: Jangoico maitea azturic. Danzalariac ez dabe beste gogoric, ezpada celan alcarregaz poztuco direan: celan olguraz ase beteco direan: celan ondo erechico daben; eta benturaz celan bat engañiatuco daben: eta onetaraco doaz al daben ondoen janciric, apainduric, ofietaco ta soñeco politacaz. Prestamentu char onecaz noc urten danzaric, arimea ezain-

du baga? Ain gach dau au, cein suan sarturic, edo suaren ondoan ifiniric, ez erre, edo ez berotutea. Errazago da, diño San Juan Crisostomoc, chingar gori bat luzaro escuan euquitea, escua erre baga, orrela nesca-mutilac nasturic solasan ibilliric ez lururiaz erretea baño. Orrela ibiltea, da ifintea leoi amurratu baten atzamar artean leguez, diño San Agustinec. Da jartea, su, ta garrez injuraturic dagoan polborazco ontzi baten ganean, diño San Ambrosioc. Mirari andiagoa da, diño San Bernardoc, ocasíño ta peligruan borondatez ifiniric, ez jaustea pecatuan, guizon il bat biztutea baño. Eta zuec euquico dozue ecerezqueriatzat, orren lucero ibiltea danza nastu arriscatu orreetan? O ce itsuturic zauqueezan deabru gaisto asmutsuac!

15.—Bai ta ardura ta quezca emon bear daben gauza da, ibiltea premia bague guizon ta emacumea escu utsac oraturic ta estuturic, ez dempora labur baten ta cumplimentuz, ezpada lucero, ta danceac dirauan guztian. Sigue ta lupo bat ucututeac bano gach guichiagoric eguiten eztau, diño Espiru Santuac, emacumearen escua ucututeac. Gach andi eransicor bat daucanaren arnaseac, urtasunac, escua ucututeac gacha eransiten badau, calte guichiago eguiten eztau, guizon ta andrearen escu ucutzeac. San Pedro Damianoc diño, mendi baten oy direala arri bi *ar-emeac* derichenac, sua ta garra emoten dabenac, baldin ifinten badira alcarren contra, edo aurrean: gueure beguiz dacusgu su chatarrac emoten arri bat besteaz edo calzaiduaz joric. Celan sutu, gartu, erreco eztira danzalari gazteac escuac emonic, cirri, oracada desonestu amorezcoac alcarri eguinic?

16.—Esan daroe, *santu santaren artean, orma lodi bat bitartean*. Bada cer jazoco da santuac eztirean mutil ta nescacha danzari zoroacaz? Jangoicoaren ce bildur euqui lei, diño San Geronimoc, onelaco danceetan, pecaturaco aimbeste zalegarri dacartzenetan, umore ona, algarabia, soñu gozoa, gente gaztea, lagun gaisto tentagUILLEAC, soñeco ederra, guztia solasa, amoreoa, olgura, ta pozcaria? Noc esango deust eguiaz, ta errazoiaz, danzan gauza charric idoroten eztala; Jangoicoaren ofensaric eguiten eztala; diversiño inocente gabi [*sic*] on bat dala? Au alan bada, nic eztaquit, cegaiti igues eguiten eben ermu bacarretara, aldeguíteco munduco peligruetaric, aimbeste Santuc: bada oneec segurutzat dagoz danzaren erdian. David erregue ona andra batí beguiratuaz galdu zan. San Geronimoc ecin quendu cituan bere tentaciñoac ermu bacarrean penitenciaz argalduric; ez eta Aita San Franciscoc billosic echunic aranza ganean, ta edurtzan. Eta zuec uste izatea, danza nastutic eztatorrela pecaturic, ez peligruric? O ce itsuturic, engañaturic, sor-gorturic dituan deabruac danza-zaleac! O ce irabazte andiac jatorcazan danceetaric! Arima santa batec icusi cituan bein, deabruac ebiltzela nasturic danzarien artean, eurai lagunduten, tentatzen, biztuten.

17.—Oraingo danza nastuac pecatutsuac direala, ezagutu lei, Teologuac ifinten dituezan erregla edo zucembideetaric ezagututeco, nos gauza bat dan pecatu, ta nos ez. *Lenegoa* da, pecatu nortala dala, borondatez peligruan ifintea; edo besteai emotea ocasíñoa, ta bidea pecatu mortalean jausteco. Dudaric eztago, len esan dodazan danza nastu loiak, bidea emoten dabela, beti ezpada, bai batzuetan, ta ascori, pecatuan jausteco; edo gogoz, edo berbaz, edo escuz, edo ibillera desonestuacaz. Beraz pecatu mortala izango da, danzaraco bidea emotea, edo alango danza pecatutsuac eguitea. Teologiac ifinten daben *bigarren* zucembidea da, pecatu mortala dala, berau eguiteco arriscuan ifintea premia bague, borondatez; guero pecatuan ez jausi arren: cerren Espiritu santuac neurri bardinean ifinten ditu pecatua bera, ta

pecatuan jausteco peligrua. Noc eztacus peligruz beteric dagozala gente gazte zoroen artean eguiten direan danza nastuoc? Guichic urtengo dabe lujuriazco suaz erre baga; edo besteai erreteco bidea emon baga. Beraz pecatu mortalac dira, onetarico danza desonestuetara joatea; batezbere ezpaoaz bearturic euren nagusiren batec, ecin bestez, ta intenciño char baga.

18.—Estuegui, mee, ta zorrotzegui berba eguiten dodala, uste badozue, itandu eiezue, ez guizon mundutarri, ezpada urte ascotan Confesonarioan jarten direan Jangoicoaren Ministro celodun arima-zaleai. Oneec daquie ondo, danceac eguiten dituan calteac. Ascotan enzun dabe, danzan lujuria bete ciriala; an amorentasunean sartu ciriala; an pecaturaco beguiac idigui cituezala; adisquidetasun gaistoan lucero iraun ebela; andic etorri ciriala doncellatasuna galtzera; eta emotera escandaloac, gachbideac, cer esanac, auziac, gastuac, ta buruco min andiac. Ceimbat emacumec iraungo ez eben euren doncellatasun garbian, joan ezpalira araco fiesta, erromeria, ta jolaserria? Ceimbat arima orain infernuan dagozanac, joango cirean Cerrura, joan ezpalira danza zorigaistocoetara? O arimac, beguira Jesusen oñi untzeaz josai: beguira Ceruco danza fiesta gozoai, ta aztuco dozuez munduko danzac.

### 3.

19.—Pecatu mortal arguagoac, ta ezagutuagoac dira, eguiten direanac modu charrean Elessan, Ermitan, lecu sagraduan. Bai ta eguiten direanean postura desonestuacaz, ibillera escandalosoaz. Bai ta comunqui eguiten direan danza nastuac gazte zoroen artean gaubez; edo erdi illunetan, libertade guago euquiteco gaistaquieriaraco. Obispo Jaun ascoc, eta nire demporan Pamplonacoac, eragotzi dituez descomuniñoaren azpian gaubezco danza nastuac; eta errazoi andiaz. Bada gabaren estaliaz pecatu gueiago eguiten dira. *Guba sartua, guztia nastua*, esan daroe. Babez lotsa guztia galduen da: aizartasun gueiago artzen da: danzara doaz, egunez joango ezlitequezanac, zarrac, ezconduac, alargunac, echura bagueac, deunguero janciac: bai ta persona beata debota mística banaca batzuc bere; birtutearen ta debota eguiazcoaren desonragarriac: eta batzuc eta besteac bearbada Confesiño, ta Comuniñoco egun santuan. Ce cofradia zabal betea danzariena! Ce ondo esan eban Marcancio jaquituna, dancea zala, deabruac bere confradeacaz eguiten eban procesiño luce bat. Ce erosario, ta letaňia ederra fededun batentzat!

20.—Eta zer esan lei, euren echeetan egunez eta gaubez artzen dituezana gaiti mutil ta nesca eroen danzac? Eztira oneec cristíñau-echeac, ezpada infernu-echeac. Onelaco danzac laquetu baño, obe leuque ondatuco balira alaco eche zorigaistoa. Beimbere gauza onic izango ezta, Jangoicoaren ofensac eguiten direan echeetan:becaturaco bidea emoten direanetan. Bildur izan bear dira, ondatu eztitezzen euren echeac, ta condenatu euren arimac: bida eragotzi bearrean pecatua, aurreratu ta lagunduten dabe eguitera gueiago ta gueiago, laqueturic gazte nastuac jolasea ibilten. Eztiñot orain ecer, araco danzara doazan emacuemac gaiti guizonez janciric, edo guizonac andreen janciaz, edo caratulaz arpeguiac estalduric: bida alan joateaz besteturic, adietan emoten dabe, doazala libertade gueiagoaz lujuriatzeco. Berreun azoteaz cariguetan ditu legueac, guizon-janciric doazan emacumeac.

21.—Danzaren donguetasuna igaroten da gorago, baldin eguiten bada Confesiño egunean, jaigunean, garizuman, ta dempora santuetan. Cetara dator goxeco Confesiñoa ta Comuniño santua, arrasteguico danza zoroacaz? Goxean Jesu Cristogaz, ta arratsaldean deabruaz? Baña au negargarria! Danzaric gueienac dira jaiegunetan. Cetara datozi gentil-danzac, deabru-fiestac Martir, santu penitente baten egunean? Ama Virgiña pobre umilde; ta bere Seme Jesu Cristoren egunetan? Danza zale al dira? Contrara bai: dacuséala-co, an galduen direala arimac, ausi legue santua, desonratu jaieguna, poztu deabrua, gaistotu ta biciatu gaztetasuna. Eztago urte guztian egunic, errico Patroi Santuen jaietan baño pecatu gueiago eguiten danic. Bertaco, ta erri inguru ataco gazte zoro gaistoenac batutzen dira damboril soñura: onen otsa enzunic eztabe an uts egungo deabruac: fraideen deia coruraco, campaia dan leguez; deabruen deia munduraco, tamborila da. Ce cristiñauc sinistuco dau, gentil fiesta, cecen, ta danzacaz celebratu, santificatu, ta ondo gordetan diriala jaiegunac? Bano iñor zuen artean uste dabenic, danza loi nastuoacaz emoten jaquéla gloria ta alabanza Jangoicoari, Ama Virgiñari, ta Santuai? Edo uste dabenic meritugarriac direala; edo Jesu Cristoc juicioco egunean emongo deutsazala graciak, esquer onac, saria, ta cerua, orain mutil ta nescacha artean eguiten direan danza nastu eroac gaiti?

22.—Ez bacarric da pecatu, danzan gauza desonestuac eguitea, bai ta arei beguira egotea berariaz, borondatez, ta gogoz. Beguiratzalle ascoc, danzalariac baño pecatu eguiago egun leiez. Danzalariac eztauque conturic, ezpada euren buruaz eguiten dabenz: baña beguira dagozanac, ascoen gais-taqueriac, ta desonesquieriac dacusez. Pecatu ascoren ecarleac dira beguiac: dira ate ta leioac nondic sartzen direan lapurrac biotzera. Ezta bacarric David, bere beguiac engañañatu ebénac. Judit garbiaren edertasunac, ta ofieta-co politac engañañatu eben Olofernes Capitai guerraria. Ez eban gichiago eguien Erodes erreguearen biotzean, bere lloba nescacha bat danzan icus-teac. Cer izango da, beguira egotea, aimbeste nesca mutil eder gazteai, euren solasan nasturic dabilzenean, milla eroqueria amorezco eguiten? Beguietan peligruric ezpalego, ez eban Job santuac promes estua egungo, ez beguira-tuteco, icusteco, ta ez pensatzeko doncella garbia zan baten bere.

23.—Beguietan peligruric ezpalego, eleuque Espiritu Santuac aimbeste encargatuco, contu eguiteco beguiacaz, ta ez beguiratuteco berariaz danic doncellaric garbienai, cerren bere edertasuná asco engañañatu dituan. Adibideoc enzunic, noc esango deust, ea ce peligru dagoan, danza ta danzariai beguira egotean? Nequez quenduco dozuz dempora lucean, icusi cenduzan ibilte charrac, San Geronomoc zartuac, ermuan barau ta azote gogorracaz egoan demporan, ecin aztu cituzan Eroman icusi cituan Dama ederrac. Dina Jacob santuaren alabari gogoac emon eutsan, icusi bear cituala, ez mutillac, ezpada Siquen-go emacumeac. Eta cer jazo jaca? Galdu ta deson-retea bere echea, bere burua, bere doncellatasuna: eztau gueiago aotan artzen emacume au Escritureac, au egun ezquero. Echean guelditu balitz, etzirian jazoco aimbeste calte, ta eriotza. Zoace orain icustera mutil ta emacume danzalari errian direan ta dagozan gaistoenai; icusico dozue, cer jazot ten jatzuen. Baña ay, bacarric egon arren ecin quendu badozuez tentamentu deungac, cer plazan aoa zabalik danzai beguira bazagoce?

24.—Danzalarien pecatuetan dauqué parte dambolinteruac, alboqueruac, pandaristac, soñulariac, ta cantalariac. Bai ta euren echeocoai danzara joaten eragozten ezteutsén gurasoac, ta ugazabac: eta danza nastu loiak eragozten

eztituezan errico buruac, albaitanez, euretan dagoanez. Eta ecin bestez laquetuten badira danzac, edo ecin eragotzi direalaco, edo aserre ta calte edo errierta andiac erne ta biztuco direalaco; orduan errico Agintariac beguiratu ta oartu bear dau, ea cer igaroten dan danzan; ta atera danzatic campora, edo castigatu pecatuzzo ibillerac, edo aciño desonestuac eguiten dabiltzen gaisto escandaloso lotsabagueac. Au da eguin bear dabena euren oficioa betetaco: eta atera arpequia Jangoicoaren fabore ta aldera. Obe da emen munduan lotsa apur bar igarotea, guero bestean secula beticoa baño.

25.—O cristíñau maitéac, batezbere gurasóac, ta errietaco Burúac, egui-zue aleguin guztia erbestetuteco onetarico danda nastúac. O zuec gazteac, igues eguzue eun legua orrelaco dancetaric, galdu gura ezpadozue doncellatasuna, arimea, cerua, ta Jangoicoa. Lurreco danzac ichiten ezpadozuez, cerucoac icusico eztozuez. Negarrezco errian, ta negar eguiteco demporan zagoce. Eriotzaraco bidezcoac zaree. Iñor eztaroe urcamendira danza ta musicaz. Bestela irudico dozue, arateguico il-toquira saltuca ta pocic doazan bildotsai, azuriai, chaldi, ganadu inocenteai, eztaquielaco ceren beguire dagozan. Eztaquizu nos ilgo zarean, ta orren pocic ta ardura bague zabilz danzan? Ceímbat artu eztitu eriotzeac danzan bertan? Ez jacu emon bicitza labur au emoteco danza fiesta, solasa gaisto zoroetan, ezpada gueure peca-tuac negar eguiteco. Danzara eroan gura zaituenean, gomute zaite, Jesusec emon cituan pausu nequezcoac, ta celan daucazan josiric untze gogorracaz bere oiñac, zure ibilte gaistoac gaiti. Berac dirautsu, ez joateco danzara: ez batuteco araco lagun gaistoacaz: maite izan daizula bacartasuna, iracurtza espirituala: echean edo Elessan emoteco, plazan galduco cenduan demporea. Asco al dira, len emon dozuzan escandaloac, fiestaric fiesta ibilliric; barea leguez errastu loia lecu guztietañ ichiric; arima asco galduric. Eguizu peni-tencia: damutu zaite len eguiñaz: esca eiozu parcaciñoa Jesus maiteari.

Eta zuc o Ama Virgiña maitea: ut supra.

## 67. DORTINEA

Beste bein *danzaren ganean*

### 1.

1.—Confesionarioan sarri jarten eztanac, eztitu ezagutuko, ez sinistuco Bizcaiko danza luce nastuac dacardezan pecatuac, eta calteac. Pecatuoc eztira bacarric aurrengoa Dotrinan eracusi ta aguertu direan desonesqueriac. Barraioez bai beste gaistaqueria ascoc, orain adirazoco dodazanac. Ce ederto esan eban San Efrenec, non dancea dan, an dagozala bicio guztiac: an galtzen direala arimac: an dabiltzela deabruac: an dabillala arriscu andian castidadea, garbitasuna, Jangoicoaren bildur santua. Ce ondo esan eban San Francisco Salesec, danza, fiesta, ta bilcune nastuetaric erne ta jaiotenean direala gueienetan errietaco erriertac, aserreac, bicioac, embidiac, icusiecinac, ta gaistaqueriac. Gerson jaquitunac diño, guichitan eguingo direala dánzac, jazo bague Jangoicoaren ofensac, batzuc besteari baño andiagóac. Dancea baño mercatu feria ta saldu erosi oberic eztago deabruarentzat: emen ditu irabazteric andienac: emen jabetuten da, Elessan galtzen dituan arimaz:

ceimbat danzalari, aimbat sare, amu, ta ezpata ditu, besteen arimac escuratu, galdu, ta ilteco. Danzara apainduric ta ederric doazan emacumeac dira, deabruac dituan armariac sendoenac, bitarteko seguruenac, guizónac benzuteco. Arma onecaz bencitu cituan Adan, Sanson, David, Salomon, ta beste asco. Judit andrearen edertasuná, ta apaindureac engañañu eben Olofernes Capitai andia, ta ogueta bi milla soldaduen Aguintaria: eta Erodiasen alaba danzariac Erodes erreguea; eta orrenbestez ece, nescacha ero oni gustu emote arren, ebagui eutsan burua San Juan Bautistari. Au gogoratutea da asco, danzai gorroto artzeco.

2.—Ondo beguiraturic, era guztico pecatuac eguiten dira danceetan; beti ezpada, gueienetan. An eguiten dabe berea arimaco alménac, eta gorputzeco cenzúnac. Danzan ez ece, danza igaro ta bere, bururatuten dira, an enzun, icusi, ucutu, ta igaro cirean gauza charrac. Onegaiti San Francisco Salesec cirautsan bere discipula Filoteari: ecin bestez bazoaz danzara, contu andiaz ibilli zaite; ez eguizu an aztu eriotzaco ordua, infernuco sua; ta danza ondoan zoaz bertati oraciñora, quentzeco danzaco gogoraciñoac, odoiac, ta lañoac. Lecu andia dauqué danzan zazpi pecatu capital aguaintariac, besteen sustrai erro ta burúac. Suberbiac, arrotasunac, baneriac, lujuriac, embidiac, celoac, lapurretac, guztioc alcarri escua emoten deutse danzaraco, edo lenago, edo an, edo gueroago. Birtute guziac igaroten dabe an peligrua, arriscua, estropezua, ecatcha. Danzara doaz aficiño entero biciaz, batezbere gaztéac: eztago an ardura ta beguiramentu andiric, edocein gauza esan, ta eguiteco: eztago Jangoicoaz contu andiric: eta esateco guztia baten, eztago bicioric an esetsiten eztabenik, edo eguiten eztan gaistaqueriaric.

3.—Mandamendu guichi dago, danzan austen eztanic: «Ce maitetasun, ta contu euqui lei Jangoicoaz: ce gogo oraciñoraco, iracurtzeraco, erretiru bacartasuneraco, Elessaco lan santuetaraco, bere biotza zatituric darabilenac lurreco fiesta, danza, solasa, ta criaturacaz? Celan gorde ta santificatu lei jaieguna, ce debociño meza ta bezperetan, gox guztia burua apainduten, ta arrastegua danzan emoten dabenac? Ceimbat eztauque señalaturic jaieguna gaistaqueriaraco, Jangoicoa ofendietaco, danzaraco, burua plazan eracusteco, bere lagun gaistoaz egoteco? Celan emoten dira errico Patroi Santuen egunac, Ermita Santuetaco fiéstac? Cecen corridacaz, danza nastuacaz, damboril soñuaz deituric inguruco errietaco gente ero zoro guztiac. Au da jaieguna santutu, onratu, ta gordetea? Gentil fede bagueac baguña bere, eguingo guenduque besteric? Eta Santúac eguingo deuscue mesederic, orren donguerro euren egunac emonic? Onela ezaindu ta desonretaco jaia, obe liteque, asteguna balitz beti; eta elduco ezpalitz ascorentzat jaieguna. Bildurtu bear gaitu San Vicente Ferrer-en esanac, eta cemaiac: gorde daiguzan ondo jaiac, diño, tan acabatuco dira gach guztiac: baña bestela laster amaituko da mundua. Ce cristiñauc esango deuts, Jangoicoaren, Ama Virgiñaren, ta Santuen gustucoac direala, euren egunetan eguin oy direan danza nastuac gazte zoroen artean? Astegunean diñozue, ez dozuela astiric lecuric lan santueta-co: jaieguna emoten dozue danzan, jocoan, gaistaquerian: Ce egun gueratuten da arima gaissoarentzat, ta cerua irabazteco? Ain guichi balio al dau? Orren merque erosten al da?

4.—Bada laugarren mandamentua alde ascotara austen da danzac gaiti. Batetic, gurasóac umeac ara biralduric, edo ara jaotea ez eragotziric: eta bestetic, seme alabac era joanic gurasoen borondatearen contra. Secula ondo aciric icusico ezta, plaza, fiesta, ta danza aguirian dabillan alaba bat. Oyturic

ederric aguertutenean, ta artutenean mutilen estimaciñoac, incensoac, cortejuac, lanbaqueriac, ecin gero sufritu dituez euren guraso zar pobreen impertinen-  
ciac, cemaiac, erreprensiñoac. Eztago aguindu baño alacoai, eche barruan  
egon ditecela; plazara, larriñara, mutil-dancetara joan eztaitezala. Ce guichi  
obedituco deutseen: asco eguingo dabé, issilic egoteaz. Seme alaba danza-  
riac azten dira lotsa-bagueac, arro banotsuac, ez eciac, biciotsuac, debociño  
bagueac. Artzen dituez adisquidetasun charrac; eguin ezcontza gaistoac; pla-  
zaco ezcontzai soñu ta compas zartada onac darraioe. Datoz echera beran-  
du: batuten dira lagun deungueacaz: echeratutenean dira gogoac emoten deut-  
senean; eta ez guichitan aldi charrecoac, emon ezteutsélaco plazan, uste  
eben estimaciño ta aurrea; edo beste bat aurreratu jaquelaco estimaciñoan,  
jancian, abilidadean. Eta gurasoac berba erdi bat badirautse, milla eranzungo  
deutse; ta lenengo berbea izango da, ya dagozala asperturic euracaz biciteaz;  
ecin sufritu dituela euren impertinen-  
ciac; echetic igues eguingo dabela. Eta  
aror non gurasoac guelditutenean libertade bague berbacho bat esateco.  
Baña ez zan ori jazoco, gurasoac eragotzi baleutse lenengotic danzara fiesta-  
ra erromeriara joatea. Eragotzi ez ece, badira gurasoac, aguinetzen daquienac,  
ondo apainduric doazala fiestara, onela ezcongueia idoroteco; iñoc guraso  
eztituela eche barruan sarturic badagoz. Baña guero negar eguiten dabe,  
frutu baga, erremedioric eztanean.

5.—Dancétaric ernietan dira, ez bacarric arimaco eriotzac, bai ta ascotan  
gorputzecoac, cuchilladac, maquiladac, gorrotoac, aserreac, escandaloac; eta  
cer ez? Seigarren mandamentuaren contra eguiten direan pecatuac, eztira  
esaquizunac. Danza guztia dago desonesqueriaco usaiñaz atsituric. Guizon  
ta emacumeac escu utsac alcarri oraturic, ta estuturic: nescacha bat mutil  
gaisto bien erdian sarturic: ecin gueigoan albocadac, tiracadac, llanezac,  
tratu desonestuac: magalac osticoca jasoric: bata bestearen ganean jausteac:  
beguirada libreac; berba loiak; ibilte escandolosoac; besarca desonestuac:  
esan lei, danza guztia dala lujuria. Zazpigaren mandamentua bere eztago  
libre danceetatic. Jaquina da, iñor eztoiala danza aguirira zatarturic, molso-  
turic: soñeco umil zar adobatuac dituenac, atzeratutenean dira ara joatean; eta  
alan erabiltea umeac umil janciric, da bideric onena, danzaraco bidea quent-  
zeo. Emacume bat baldin ederric janciric badago, ecin egon da, burua  
eracusi ta aguertu baga. Danic ondoen janciric, apainduric, politic doaz  
danzara. Eta nondic urtengo dau araco soñecoac, oñecoac, eta janciera eder  
costotsuac? Osturic echeoai, edo campocoai, euren guraso tristeac ospitale-  
ra botaco badituez bere. Echeco lapurrac dira caltetsuenac. Fiesta aurreco  
egunetan enzun oy da, batean ostu dabela olloa, urdaia, aria: bestearen garaua;  
bestean ostuko fruta guztia; erromerian meriendac eguiteco. Ceimbat calte  
negargarri dacartzén dánzac eta erromeriac.

6.—Eztira guichiago, zortzigarren mandamentuaren contra eguiten direan  
pecatúac danceétan. Ceimbat murmuraciño urlaren contra, ceimbat embi-  
dia, celo, ta esate gaisto, aurreratu jacolaco portean, estimaciñoan, ondo  
erechitean. Ceimbat chismeria, esamesa, testimonio guzurrezco, besteac era-  
cusi deutsan cariñua gaiti, danzara atera dabelaco, ta berari jaramon ezteut-  
salaco. Ceimbat guzur, sospecha, ta juzgu char eurac gaiti. Ceimbat celo  
ezconduen artean; senarrac icusiric bere emazte modu gaistoan beste galaiaz:  
eta emazteáic bere senarra, oraca, llanezaca, cariñuz beteric emacume ero  
danzalariaz. Mandamentu guztien contra eguiten direan pecatuai eransi eio-  
zuz Sacramento Santuen contra eguiten direanac danza zorigaistocoac gaiti.

Ceimbat sacrilegio Confesiño ta Comuniñoetan, beimbere ondu bague dabantzelaco. Ceimbat buruco min, quezca, errecelo, ta concienciaco aranza ta cicada Confesorac, alacoac absolbitutea gaiti: lengo penitenciac cumplitu eztituezalaco; beste bein danzara ez joateco berbea atera ecin deutselaco.

7.—Baña noc esan leiz, danzatic datozañ gachac, eta pecatuac? Dacar-quez nai bague andiac echeai: calte asco arimai: quentzen dabe lotsea; ta pecaturaco bildurra: guichitu debociñoa; gueitu nagitasuna oneraco. Ezain duten dituez doncellac: azten dituez emacume lotsa bagueac, mutil-zaleac; eta guizacume azartuac, desobedienteac, bicitza gaistocoac, biciotsuac, desnesticuac, emacumeen tentatzalleac, arimen galtzalleac, ondasuneen ondatzalleac, bicio guztietara emonac. Galtzen dabe jaztetasuna; gaistotu erria, ta bete bicioz ta, gaistaqueriz. Eztiñoc, au guztia jazoten dala beti danza, ta danzarietan; bai gueienetan zorigachez. Onegaiti diño San Carlos Borromeo Obispo andiac; danzan pecatu guziac danza eguiten dabela: ta gach dala urtetea pecatu baga danzaric. Secula icusi eztot danzalari deboto eguiazcoa danic; bere ustez bai, baña ez eguiaz. Testamentuko Ucha santua, ta Dagon Jainco falsoac ecin batera egon cirian altare baten. Nagusi bi contracorrac, ecin batec serbitu leiz ondo batera, diño Jesusec. Eztatoz ondo debociñoaz, birtuteaz, ta garbitasunaz orrelaco danza nastuac guizon ta emacumeen artean.

8.—Au alan izanic, ta gueure beguiz icusiric, noc emongo ditu ontzat, inocentetzat oraingo danza moduac? Noc esango dau, eztacarrela peligruric, arriscuric, gachic, eta pecaturaco bideric? Simpleac direala, danzara eztoazanac, eta danceen contra prediquetan dabénac, eta eragozten dituezan Confesoréac? Zuc ala arec dauque errazoia? Zuc ceure concienciaren barria baño eztaquizu, aec ascorena; ta dazaude San Efrenec leguez, eztala erraz, pecatu bague urtetea, aimbeste deabru danzariacaz nasturic dabilzen danzatic; ain beste lagun gaisto zoro dabilzen bilcunetic. Eta izango dira guraso, ta ugazabac, laquetu ez ece, aguindu bere eguiten deutsénac danzara joaten euren umeai, ta otseñai? Ce miragarri izango da guero, icustea arriac orren galburic, jazotea zorigachac, señ-eguiteac, ezcontza gaistoac, ta negarquizunac echeetan, ta errietan? O Jangoico maitea, erruquitu zaite guzaz: arguitu eguiuz danzalari itsu engañatuac: ta eguin gaizuz guztioc zureac.

## 2.

9.—Danceen ganean esan dodazan gauceetara, emongo deutsé milla eranzute, achaquia, ta iguesbide: baña orain eracusico dot euren errazoi, ta fundamentu-baguetasuna. Batec esango deust, Santo Tomas Dotoreac arpegui charraz beguiratuten badeutse bere, danzai; baña eztitzala eragozten, motibu andiren bat danean; celan dan bitoria andi poz baten demporan, edo ezteguetako dempora alegrean. Alan diño; baña guero diñoanetic, edoceinec ezautuco dau, ez lituquezala secula ontzat emongo, balecus Bizcaia-danza nastu loi desonestuac. Bada diño, eguiñ ditezela motibu andiaz, guichitan, ta persona garbien artean, siñu ta postura zantar baga. Eta barriz, zuec zoace danzara motibu baga, nos nai, sarri: zuec zabiltze errian direan gaistoenacaz: zuec eguiten dozuez escuca loiac, oracada lotsa bagueac, albocada, ta jote desonestuac, ta al dozuezan gaistaqueriac. Onela eguiten danzac gaiti, diño

Santo Tomas berac, direala charrac eragotziac, pecatutsuac. Aror non Dotorre Santu au ta besteac dabiltzan batera gai ta uste onetan.

10.—Bitoria andi bat irabazten danean, libertade señalatu bat lograturu danean, Persona andiqui baten etorreran, ta eztegu demporan danzac egungo badira bere, baña beti izan bear dira cristiñau-garbitasunaz, Jangoicoa ofenditu baga. Eguia da, ezcontzaco ezteguac eztabela escatutene negar-soñuric, milincoliaric, tristuraric. Salomonec diño, gauza guztiac dauquéla berezko demporea, triste egoteco ta pocic egoteco: danza ta saltu eguiteco, ta gueldiric egoteco. Baña Salomonec eztau secula demporaric señalatu peccatum diversiñoac euquiteco. Ezteguetan baño peligru gueiago non da? Gente gaztea, umore onean, pocic, eder jancircic, ondo jan edanic, soñulariac, ezcon-barriai gustu emoten, amorezco olgurac eracusten, ezconduen gauza aitetuten, berba loiac enzuten, edanaz beroturic. Orra ce arriscu andian dabilan castidadea.

11.—Beste batec esango deust, jauna, San Francisco Salesec licencia emoten deutso Filotea bere discipula deboteari danzara joateco: bai ta diño, danzac berez eztiriala ez onac, ez charrac: berez beste diversiño ez-eragotziac leguez direala. Guc bere ori berori esan dogu, ta diñogu orain, ta beti, danzai eurai eurenez beguiraturic, dongueac eztireala; baña bai, baña bai gaurco egunean eguin oy direan leguez, nastuac, ta escandaloaz. Eta Filoteari emoten badeutso licencia danzara joateco, da gente garbi cenzundun beguiratuen artean garbiro eguiten direanetara: ta ori bere guichitan, meatz, ecín bestez, nagusiac orretara bearturic: contu ta beguiramentu andiaz ibilleric: danzan bertan gogoraturic, bere eriotzaco orduan, infernuco tormentu arrigarrietan; eta danza ostean oraciño gogozcoa euquiric, aztu eraguiteco danzaco gogoraciñoac; aztu eraguiteco an eransi jaca mundutasuna. Nor zuetaric dabil onela danzan, ta danza ondoan?

12.—Bai ta dirautso, contuz ibilli dedilla danzan: aciño charric egún eztaiala: moduzcotasun garbia guztian eracusi daguiala: intenciño ta gogo deungueaz joan eztidilla: ez sarri, ezpada guichitan. Ezteutso licencia emoten edocein danzaraco, ezpada garbietaraco, ta persona beguiratuen artetako. Bada bestela, ez eutsango, zoaz guichitan; ezpada, *etzaite secula joan*: ez eutsan esango, *danza guichi eguiteco*; ezpada, aream *bere ez eguiteco*. Eta oraingo danzalariac eztira Filotea garbi bildurtiac: mundu guztiac dacus certa celacoac direan. Sinisgarri ezta, Santu andi onec licencia emongo eutsela Bizcai-danza nastura secula elduteco, baldin icusi balitu, ce desonesqueria, ta lotsabaguetasunac eguiten direan, mutil gaisto bien artean nescacha bat sarturic, escuac alcar emonic, milla eroqueria esan tan eguinic. Ynjuria andia eguiten deutsé Santu oni, diñoe Aita Santu Benedicto Amalaugarrenac, Concina, Colet, eta beste ascoc, esan ta uste dabenac San Francisco Sales on onec ontzat emoten dituela era guztico danzac. Gozoa, biguna, eztia bera zan, baña baletor cerutic, balecus Bizcaico danza nastu escandaloso desonestua, ta balenzu icentatu ta ifinten ebela danza onen fabore ta defensoretzat, uste dot, aserre bician su ta gar eguinic eracusico litequela, alan diñoenen contra: eta esango leunque: Cer? Jangoico maitearen contra eguiten direan danzac emongo dodaz ontzat? Guzurra diñozue.

13.—Beste batec esango dau, jauna, *obe da danzan ibiltea, ece ez murmuraciño, desonesqueria, lapurqueriac eguiten ibiltea*. Onetara dirautsut, obe dela guizon bati oguei ezcutuko bat ostutea, berari bere bicitzea quentzea baño: baña biac dira pecatu. Biotzeco min andia baño obe da min izatea escuan

edo oñean: baña gura eztozuz ez bata, ez bestea. *Jauna, obe da, aguirian danzan ibiltean; lecu bacarrean, ezcutuan, ta bazterretan beste gaistaqueriac egui-tea baño. Danza aguiriac quenduten badira, or emen ibilico da gente gaztea issilca pecatuac eguiten.* Au da emon deroen eguesbidea, achaquia, ta errazoa, ontzat emoteco danzac, ez bacarric danza zaleac, bai ta zorigachez letrazco guizonac, jaquintsutzat, ta debototzat munduac dituenac. Baña engañetan dira: cerren 1: quenduric danza nastu aguiriac, quentzen jaco lujuriaren suari egur asco, su-autsa edo polbora, yesca edo ardaia: guichiagoc icasten dabe pecatu eguiten: danza aguiriac direan errieta, pecatu gueiago eguiten da bazterretan ta ezcutuan: ardaoteguiric ez dan errian, ordiqueria guichiago izan oy da: ocasioñoac eguiten dau lapur. 2: Danza aguiriac quenduric, labur-tu edo aldeguiten dira, ez bacarric desonesqueria, bai ta len esan dodazan pecatuetaric asco, escandalo aguiriac, issil-mandatuac, celo ta embideac, la-purqueriac, ta pecaturaco bide asco.

14.—3: Gach guichiago da, ezcutuan, oqueluan, lecu issilian banaca batzuc pecatuan jaustea, asco ta gueienac danza aguirian baño. Eta bestetic eztira guichituko, ezpada gueituco ezcutuco pecatuac, plazaco danzac laque-turic. Gueure begiz dacusgu, ta iñon baño obeto Confesonarioan, dabolinic; panderoric, soñulariric eztagoan errian, garbiago bici direala gazteac. 4: Danza nastu aguiriac quentzea gaiti, badoaz lecu bacarretara gaistaqueriac egui-tera, gurasoac, ugazabac, eta juezac ez dabe concienciaco zorric, baldin eurac eztaquielo orrela badabilz: baña bai, aguirian laqueturic, icusi, ta ez eragotziric, al dabenean. Beste batec esango dau, *jauna, nic uste dot, ez todala secula pecaturic eguiten, ez eta euqui peligruric danzan.* A, gaisso itsu engañatua! Aita Santuac, Confesoreac, Misionista oytuac erriric erri ibilten, confe-siño generalac enzuten, ondo daquienac leguez dirautsue, danza nastouc dagozala peligru, sarez, amuz beteric, pecatuzco ocasioño, estropezu, ta bi-dez beteric dagozala: arimen galdugarria, ta ondaquizun caltetsuac direala: zuri, ala arei sinistuco deutségu? Cilicioz, azotez, barau, ta penitenciaz euren griñac eciric dituezan Santúac aitortutene dabe euren peligrua: eta barriz mutil ta nescacha gazte eroac nasturic danzan orrela ibilliric, eztozue asmen-tan tentaciñoric, arriscu, ta peligruric? Zuen uste falso orrec etzaitue libratu-co Jangoicoaren aurrean. Or da aguirri ce conciencia ilun, zabal, nasai, ardua bagaea dozuen. Or compon.

15.—Beste batec esango dau, *danza bitartean tentaciño edo pensamentu char batec esetsi arren, ezteutsala borondatzco lecuric emoten.* Bein edo bestean ori jazo liteque: baña bai ta guerta diteque zuc pecatuari lecuemonic, ez ezagututea, orretara ecanduturic, oituric, eguinic zagozalaco. Ospital, carcela, presondegui atsitu baten lenengoetan asmatzen da usain charra: baña atara eguiñaz, ez. Contu daigun lecuric pecatuari emon ez ceuntsala danzan bertan: baña ceimbat bider emon ezteutsazu guero ceuren bacarrean? Ceimb-at bider ceure artean atseguiña artu eztozu, danzan enzun, icusi, ta egui-ñaz? Purga, meneno, satarri, eden batzuc eztabe bereala berea eguiten, ezpada gueroago. Cer bada, ibilli gazte zoroacaz escuac loturic, cariñuzco llanezac, eta oracada desonestuac eguiten, berba zantar loi eceac enzuten, eta emoten zara pecatutic libretzat? Ori sinistuco deutsut, zacusdazanean laba gori baten sarturic, erre, ta berotuten etzareala: egoa axe andi baten candela ereseguin bat amatatu baga farolabaga daroazula.

16.—*Jauna, danzara noianeau, eztarot beste gogoric, expada umore onean dibertitu, ta demporea igaroteco.* Ez? Bada orrettaraco asco da mutillac muti-

llacaz, edo emacumeac euren artean guizon baga ibiltea solasca, jolasca, jostatzen. Cegaiti bada zoaz aetara? Cegaiti gura dozu araco mutil edo neschaz ibilli? Beraz dibersiñoaren baño gueiagoren billa zabilz. Baña neste au baga gatzic ez dau danceac. Ce ederto esan eban jaquitun batec, *quen lujuria, ta quenduco dozu dancea.* Juecen batec eragotzi dituanean nesca mutil nastuen danzac, beste baga deseguindu dira berez. *Jauna, eznoa danzara pecatu eguiteco usteaz ez gogoaz.* Sinisten dot, batzuc eztaroela gogoric gauza dongueac eguiteco: baña ordiac tabernara; eta egartsuac iturrira leguez zoaz danzara atseguiña artzera, griña charrai gustu emotera, beguiac, biotza, gogoa ase betetzera. Eta ezpabere, cetara datozi araco beguirada maitetsuac, araco escucada estuac, araco or emen joteac, araco cariñuzco berbac ta barreac? *Ympudicus oculus, impudici cordis est nuntius;* diño San Agustinec: beguirada desonestuac, biotz desonestuarenadirantza direala. Eztoaz guztiac libertitzeko gogoaz bacarric. Ceimbat eztoaz ondo apainduric, an irabazteco ezcontzaraco, edo pecaturaco lagun bat? Eta ceimbat guraso gaistoc ifinten eztitez saldu-erosian euren alabac, biralduric ederturic fiestaric fiesita, fin charraz mutil ezconguei bategaz nastu ditecen, pecatuaren bidez izango bada bere? Eta emendic ceimbat naibague, buruco min, ta negarquizun eztatorque guero?

17.—*Jauna, noa danzara, burla ta barre euquin eztaguiden: simple chochatzat euqui ez naquien.* Eta noc alacotzat euquico zaitu? Ez persona burudunac, eta cristiñau onac; ezpada mundutar zoroac. Doncella baten onraric andiena ta preciatuena da, izatea moduzcoa, erretiratua, danza ta erromerietaric igues eguitea. Danzalari fiesta zaleai baño ezconguei gueiago ta obeac aguertzen dira onesta garbientzat. Plazan mari-mutil buru arin eguinic dabillan nescacha, iñoc gura eztau bere echea gobernetaco. Quen, quen erotzar ori: bicitza onic emongo ezteuscu: echeco guztiac danzan ta gogaituric erabilli gaitu. Aror cetan dagozan emacume danzariac.

18.—O errico Buruac, al dozuen guzta eguzue, eragozteco guizon ta andreen danza nastuac; euracaz batera danzatu gura ezpadozue infernuan. Dambolinteruac daroan erreenteaz ifini eguzuez beste dibersiño garbi batzuc gazteentzat, edo emon Ospital bati; edo ifini emacumeentzat escola-maestra bat, mutillentzat dozuen leguez. Gente zoroen beguietan simpletzat euquino zaitue; baña ez cristiñau oneen, ta Jangoicoaren beguietan. O gurasoac, zuen arima, eche, ta umeen caltean da, oneec danzara joatea. ¿Aztu al jatzue, ceuroecaz igaroten zana gazte demporan? Eta o ce ondo eguiten daben ugazaba, ta ugazabandre ascoc, leguea ifiniric lenengo egunetic serbitzari otseñai, oguric jango eztabela euren echean, baldin oñic ifinten badabe larriñean danza demporan. Eztagoz orregaiti deunguego serbituac: ta quenduco deutsé bidea lapurqueriac eguiteco, adisquidetasun charrac euquiteco. Bide donguea da dancea, gaztetasuna aci ta eciteco, ecandu charrac quentzeco, echeac zorionduteco. Au liteque, gura izatea, orioaz ta amukoaz sua amatatu. Nor ondu ta obetu da danceaz? Contrara bai, ceimbat galdu, ta condenatu eztira? O Jesus maitea erruquitu zaite guzaz.

Eta zu, o Ama Virguña maitea: *ut supra*

## EGEMPLUAC

### *Seigarren mandamentuaren ganean*

1.

*Castidadearen* defensan egemplu miragarríac emon deuscuez Santúac dempore guztieta. Legue zarrean dacuscu Josef Egitoarra presondegui goror baten sarturic dempora lucean, Putifarren emazte bere echechoandread beragaz pecatu eguitera bearturic, lecuric emon ez eutsalaco. Gurago eban sufritu eregui eutsan testimonio guzurrezcoa, ta carcelaco nequeac, bere castidadea ta garbitasuna galdu ta ezaindu baño. Eta emendic etorri jacon bere zoriona, ta Egitoco erregue-ordeko izatea.

Egemplu ederra ichi euscun onetan Susana emacume garbiac, Juez aguintari agure bic esan eutsenean, baldin ezpazatorren eurecaz pecatu eguitera, salatu, ta bicitza quendu eutséla. Baña osotasun andiaz eranzun eutsén, Jangoicoaren justiciaco escu gogorretan jausi baño, naiago ebala euren escuetan jausi, ta iltea. Au esan ta eguien ebalako, Jangoinkoac Daniel santuaren bitartez libratu eban eregui eutsén testimonio falsotic, ta eriotzatic. O emacumeac, emen icasi eguihue, castidate gordetan, ta fidencia guztia Jaunagan ifinten, pecatura beartu gura zaituenean nai ta nai ez, edo fuerzaz guizon gaistoren batec.

2.

Legue zarrean baño egemplu miragarriagoac dacusguz legue barrian *castidadearen* fabore. Etzan orduan orain beste preciatuten doncellatasuna: Abel, Elias, ta beste banaca batzuc baño guelditu etzirian ezcondu baga. Ama Virgiñeac asiera emon, ta jarraitu deutse onetan beste cristiñau doncella ascoc. Neurri bagueac dira, igaro dituezanac carcela, azote, martirio, ta eriotzea *castidate* ta *doncellatasunaren* defensan. Ce egemplu ederra onetan emoz ez eben, Santa Agueda, Lucia, Ynes, Cecilia, Santa Urola, ta bere amaca milla lagunac, ta beste doncella ascoc? Galdu cituezan euren bicitzac, ez galdu gaiti gorputzeco garbitasuna, ta *castidatea*.

Ceimbat milla persona guizon ta emacume eztacussuz gueure egunetan sarturic Comentuan, largaric ezcontzat, eta gorputz-atseguiñac *castidadea* gordete arren? Ceimbat onetariko mundu zabalean, bai ta ezconduen artean bere, *doncellatasuna* ezaindu eztabenac? Altaran ifiniric dacusguz ezcondu doncella asco. Onetariko bat icustea, gogaicarri andia da beabruentzat, egemplu onec daracuscun leguez. Juan Abate santuac bere espíritu, conjuro, ta debociñoaz ecin ateraric egoala deabru gaisquiñac gorputz batetic, eldu zan ustecabez ara guizon necazari bat; ta besteric bear etzan deabruac igues eguiteco andic. Guizon pobre oni itandu eutsan Abateac, ea ce birtute bacarra ceucan, ea celan bici zan? Eta eranzun eutsan: Aita, fraide sartu gura neban, baña gurasoac gura ta gura ez ezcondu ninduen. Zorionez idoro neban emazte garbi bat, ta bioen borondatez bici gara urte ascotan doncellatasuna galdu bague. O, esan eban Abateac, orrela, miraritutzen ez nas, deabruac zu ganic igues eguiteaz. *Specul. exempl v. casti. exempl. 3.*

## 3.

*Desonesqueriac* pecatua gaiti Jaunac eguin dituan castigúac arrigarriac dira. Escritura santara bagoaz, icusico dogu, pecatu onen castiguan itoric mundu guztia. Araguiaren suac artu eban ain bero ta gar andia, ce, guztizco uriola, urezco corrontac bear cirian su au amatetaco. Ycusico doguz Sodoma, Gomorra, ta Pentapolisco erriac ceruzco suaz erreric, quiscalduric, dana auts biurturic, euren desonesqueriac gaiti. Bicio gaisto onegaiti ebagui eut-seezan burúac Siquengo erricoai, ta Ysraeletaric bere il cirian eun ta lau milla desonestu. Ysraeldar eurac emacume Madianitacaz lujuriazco pecatuan jausi cirialaco, Jangoicoac il cituan egun baten ogueta lau milla guizon. Eta beste bein Benjamingo Probincian il cituan seireun guizon ez beste guztiac, Lebita baten emazteaz eguin eben desonesqueria ezain itsusia gaiti. Onan erichon guizon ezcondu bat bere gorputzaz desonesqueria bat eguiten egoala, an bertan guelditu zan illic. David erregueac eguin eban pecatu desonestua gaiti, ce gach, calte, ta azote gorrac etorri etzirian bere erreinura? Pecatu onegaitic dacuscuz illic Amron beronen semea; Sararen zazpi senar desonestuac; Zambri ta Madianita, ta beste asco, Escritura santeac aitetutene dituenac. Noc gorroto andi bat artuco ezteutso pecatu madaricatu bildur-garri oni? Onelaco castiguac, calteac, ta zorigachac badacarz mundu onetan, cer guero infernuetan?

## 4.

Eta joan baga Escritua santara, ta achinaco demporetara, ce calte gorrac ecarri eztitu mundura desonesqueriac pecatuac gueure demporetan, gueure ezagunetan? Noc ezpada pecatu gaisto onec quendu dau federante aimbeste erreinutic? Noc euqui eban Ezpaña zazpireun urtean Moro infieles aguinduaren azpian? Noc erne ditu eregiac, aci erracuntzac, banatu erriac, pobretu echeac, desonratu familiac, biztu guerrac, aserreac, eriotzac? Ceimbat erima eroan eztitu infernura? Ceimbat artu eztitu eriotzeac, pecatu au eguiten egozan dempora bertan euren gorputzecaz, edo besteenaz? O ceimbat onetarico jazo dan gure demporan, bestec ezpaquie bere! Eneuca secula acabatuco, asico baninz esaten libruetan iracurten direan castigu ica-ragarriac, lujuriazco bicioan sarturic egon direanacaz. Esana da asco, bicio au gorrotuteco, castidadea gordeteco, gorputzari ucatuteco escatzen dituan olgurac, atseguiñac, ta gustu citel-eragotziac. O ce latzqui paguetan direan infernuan; ce plancha goriacaz erreco direan an, pecaturaco lagundi eben escuac, ta araguiac!

## 5.

*Danzac* dacarrezan zorigáchac, eta ce gorroto dituzan Maria Santisimac, eracusi eban, orain esango dodan Egemplu bildugarrian: Napolesco erreinuan Monte derichon Ama Virgiñaren Ermita famatu batera batu cirian erromes asco bertaco fiesta egunean. An egoan Ospicio edo bici lecuan emon eben gauric gueiena, oy dan leguez, danzan, jocoan, ordiquerian, ta gaistaquerian. Baña aror non, an egozan bost persona debotac ecusela, jatsi zan Ama Virgiña santísima achote edo suci eressegui bi bere escuetan cituala, arpegui aserratuaz, eta damu andiaz an eguiten cirian danza nastu, ta Jangoicoaren ofensacaz. Cer da au, ciñoan, onela celebretan dozue nire jaia, ta ezaindu

nire Ermita santea? Au esan, ta colera bician sarturic leguez, echeari sua emon eutsan bere escuz, ta ordu terdi baño len banatu, erre, ta ondatu cituan milia ta bosteun persona baño gueiago; eta oneen artean topatu cirian asco erdi erreric emacumeac guizon janciric, ta guizon asco emacumeen jancieraz. Noc eztacus emen ce gorroto dituan Ceruac lurreco danza nastu gaistóac? Noc secula enzun ta icusi dau, aserre bician sarturic, ta castigatza-lle gogor eguinic Ama Virgiña gozo bigun erruquiorra? Misericordiazco Ama, justiciazco eguinic? O danzalariac, beguira beste onembeste jazo eztidin zuecaz, Ermita ta Santuario beneragarrietan onelacoric eguiten badozue. *Señeri part. 3. disc. 21. Yllmo. Valero, eta allii.*

6.

Mutil *danza* zale batec enzunic Predicadore baten aotic, danzac ciriala infernuraco bidea, atea, ta pecatu ascoren sustraia, azartasun lotsa bagueaz esan eban: dana dala, ta esan begui Predicari estu onec nai dabena, nic diñot eta uste dot, danzac eztiriala pecatu, eztagoala euretan peligruric; dibersiño olgura, ta pozcaria inoncenteac direala: nic beintzat largaco eztodaz. Au esan ta laster joan zan danzara: ta an bertan gente guztiengaurrean jausi zan goitic arri andi bat bere ganera, zapaldu, zatitu, ta lurrac irunsi eban. Alan dacar guertaldi bildugarri au Discipulu derichon Autore jaquintsuac, *serm. 154. et allii.*

7.

*Dancétan* eguiteen direan pecatuac, Jangoicoac berac eracusi cituan aldi baten deabruaren bitartez. Fraide santu batec jaquin gura eban, ea cer zan gaztetasuna gueiago galduen ebana. Oraciñoan egoala, icusi eban, mutil ta nescacha asco ebiltzela Elessa baten danzan, escuac alcar emonic, milla eroqueria esaten ta eguiten, eta escu-aurreco danza-guidaria zala guizon lotsa bague gaisto bat. An celaian egoan Santo Cristo baten aurretic igaroten cirian bacochean, eguiteen eutseezan burla, barre, irri, siñu, ta desprecio andiac. Lenengo inguru gira biran, zabaldu eutseezan oñac Jesus Crucean josiari: bigarrenean jo eben escuetaco untzeetan ta sartu cituezan barrurago: irugarrenean, quendu buruco coroia, zapaldu, oñazpitu, ta barriru ifini eutsen buruan: laugarrenean, danzalari guztiac barre ta burla eguiteen eutsén Jesu Cristori: boscarrenean, bota eutseezan chu loi atsitua bere arpeguira: seigarren bueltan, idiqui eutsén gueiago bularreco llaguea: ta azquenean, danzari guztiac asi cirian Jesu Cristoren contra.

Fraide santua mirarituristic ecusenaz egoala, esan eutsan danzalarien guidariac, zuc jaquin gura cenduan, cer zan gente gazteari emoten eutsena ocasiño ta bidea gaistotuteco: ta aror non nai ta naiez, Jaungoicoac bearturic, eracusi deutsudan icusi dozun danzan. Emendic ateraco dozu, gazteen galduarrria dala dancea. Ni nas deabrua, ta danza nastu guztien zucenguiellea: eta, o eta ceimbat arima neuretuten dodazan dancetan! Danzalarien escuca, ta ibilte gaistoac, min emoten deutse escuetan Jesu Cristori, bai ta bere oñetan, bularrean, ta buruan. Euren olgura, bulzada, berba desonestu, algara, ta barreacaz darabilde burlazar Jesus, ta biraoca. Baña ondo castiga-

tuac izango dira infernuetan. O danzariac beguira zaitece contuz espillu onetan! Bein edo bein ezautu eizue, ce ofensa andiac eguiten deutsazuezan Jesus maiteari danza orrétan. Escatu eiozue lengoen parcaciñoa, propondu- ric eguiaz, danzaric ez eguiteco, ez icusteco. Larga lurreco danza eroac, gura badozuez icusi cerucoac. Ara eroan gaizala Jangoico maiteac. *Amen. Marcan. hort. pastor. Barcia, Calatayud et alli.*

#### BIBLIOGRAFIA

- Altzibar, Xabier, *Bizkaierazko idazle klasikoak*, Bilbo, 1992, pp. 78-92.
- Añíbarro, Pedro Antonio, *Voces vascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra*, Bilbo, 1963.
- Añíbarro, Pedro Antonio, *Misionari Euscalduna*, Arantzazuko artxibutegian dagoen eskui- datzia, 2. liburukia, pp. 22-45.
- Basabe'tar Koldobika, "Pedro Antonio de Añíbarro Aitaren euskarazko eskuidatziak", in *Euskara*, XV, 1934, pp. 258-261.
- Etxaide Itharte, Jon, "Añíbarro" in bere *Hamasei seme Euskalerriko*, Zarautz, 1958, pp. 19-27.
- Villasante Kortabitarte, Koldo, "Aita Añíbarro, euskal idazlea", in *Eusko-Gogoa*, 1956, Ilbeltza-Otsaila, pp. 66-88.
- Villasante Kortabitarte, Koldo, "Introducción", in Añíbarroren *Voces bascongadas...*, Bilbo, 1963, pp. 7-20.
- Villasante Kortabitarte, Koldo, *Historia de la literatura vasca*, Arantzatu, 1979, pp. 214-223.